ASTELEHENEKO
# Goienkaria

2008ko Ekainaren 30a > Astelehena > VI. urtea > 196. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Kooperatiben alderdi identitario eta soziala aztertu nahi dugu"



**Ainara Udaondo**
Huheziko irakaslea > 06

**G2a** Udako kultur programazioa herriz herriz > 23

**BERGARA** San Martzial eguna ospatuko dute gaur, ohiko letaniarekin > 11

**FUTBOLA** Sokoa Azkarate atezain arrasatearra, Realera > 21

**ELKARRIZKETA** Josu Zabala MUko errektorearekin izan gara asteburuan > 27

**POLITIKA** > HERRI GALDEKETAREN LEGE PROIEKTUA

## Urriaren 25erako iragarrita dagoen herri galdeketa, airean

**GASTEIZ** Boto bakar bategatik onartu zuten egubakoitzean Ibarretxe Lehendakariaren proposamena

**MADRIL** Zapateroren gobernuak lege proiektuaren aurrean helegitea aurkeztuko duela iragarri du

**DEBAGOIENA** Ibarreko pertsona ezagunen artean inkesta egin dugu, haien ikuspuntua ezagutzeko asmoz > 03

**OSPAKIZUNAK** > ARANTZAZU

## Jorge Oteizaren 100. urteurrena

Irailetik aurrera hainbat ospakizun egingo dituzte Arantzazun > 04

## 'Bergarako Ahotsak', Interneten eskuragarri

Bergarako Udalak, Badihardugu elkartearekin lankidetzan, azken 25 urteotan herriko euskara jasotzeko egindako grabazioak Internet bidez kontsultatzeko moduan jarri ditu, interesa duten guztiek erabil ditzaten. Webgunearen aurkezpena (*www.ahotsak.com/bergara*) egin zuten udaletxean egubakoitzean. 140 lagun ingururi egin dizkiete elkarrizketak, eta haietako batzuk osoko bilkuren aretoan egindako ekitaldian elkartu ziren. Herriko kontuak eta historia protagonisten berbetan jasota daude orain. > 11



**AURKEZPENA** Bergarako 140 lagun ingurueren testigantzak jaso dituzte; haietako batzuk udaletxean izan ziren egubakoitzean. JOSETXO ARANTZABAL

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-05
**Elkarrizketa** > 06
**Iritzia** > 07-08
**Herriak** > 09-14
**Kirola** > 15-22
**Kultura** > 23-27
**Sailkatuak** > 28
**Irrati-Telebista eta Hitzorduak** > 29
**Berri-zakua** > 30-31
**Azkena** > 32

**ARETO FUTBOLA** > ESKORIATZA

## Espainiako entrenatzaile onenak Eskoriatzara datoz

Espainiako areto futboleko entrenatzaileen elkarteak antolatuta, kongresua izango da hurrengo aste bukaeran Eskoriatzan. Horrela, areto futboleko entrenatzaile onenak elkartuko dira Eskoriatzan uztailaren 4tik 6ra arte. Berbaldiak, mahai inguruak, partiduak eta bestelako ekitaldiak antolatuko dituzte hurrengo aste bukaerako.

Domekan, kongresuaren amaieran, bi partidu izango dira: euskal jokalarien selekzio bat eta Eskoriatza taldea izango dira aurrez aurre eta, jarraian, ohorezko mailako jokalarien arteko partidua jokatuko da Intxaurtxueta kiroldegian.> 19





LASAGABASTER

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

BIHARTIK AURRERA

BEHERAPENAK

ASTELEHEN GOIZEAN ZABALIK

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Uztaileko zozketa

PARTE HARTZEKO
SMS 5533
harpidetza@goiena.com
Tel.: 943 08 10 50

DVD-a
EROSKI zurekin

Bidali AG DVD 5533 zkra

KAMISETA + POLTSA
skunkfunk

Bidali AG KAMISETA 5533 zkra

KAMISETA + ALPARGATAK + CD-ak
karrikiri

Bidali AG EUSKALPRO 5533 zkra

AGko
HARPIDEDUNENTZAT
SOILIK
Oraindik harpidedun ez bazara, anima zaitez!
Tel.: 943 08 10 50

SARI NAGUSIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

HONDARRIBIKO
ARTIZARRA LANDETXEAN GAU BAT

Zozketan sartuko dira: 08-05-19tik 08-06-04ra jasotakoak



Artizarra nekazalturismoa
www.nekatur.net/artizarra
943 64 23 37 / 655 72 18 34

Etorri eta gozatu inguru honetan!!

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

# Lege proiektua onartuta, urriko kontsulta airean

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Espero bezala, Herri Galdeketaren lege proiektuak Eusko Legebiltzarraren onespena jaso zuen egubakoitzean, Gasteizen. Boto bakar bategatik lortu zuen gehiengoa Juan Jose Ibarretxeren proposamenak: hirukoa osatzen duten EAJ, EA eta Ezker Batua alde azaldu ziren; Aralarrek ere baiezkoa eman zuen eta EHAK-ko zazpi legebiltzarkideetatik bat alde azaldu zen (guztira, 34 boto). PPk eta PSE-EEk kontrako botoa eman zuten (33 boto).

Edozein modutan, ikusteko dago urriaren 25eko kontsulta egingo den ala ez. Izan ere, Espainiako gobernuak helegitea aurkeztuko du lege proiektua atzera botatzeko. Ibarreko hainbat lagunen iritzia jaso nahi izan dugu.



**Mikel Lezamiz**
SOZIOLOGOA



**Elena Laka**
ABOKATUA



**Juan Kruz Mendizabal**
APAIZA



**Juan Jose Alvarez**
ABOKATUA



**Maite Aristegi**
ABOKATUA



**Jose Ramon Elorza**
IRITZI EMAILEA

**1.** Zer iritzi duzu Galdeketaren Legearen gainean?

**2.** Galdeketa egingo dela uste duzu?

### Mikel Lezamiz

**1.** Alde batetik, galdeketa bera, planteatzen diren bi galdera horiek nahiko nahasiak iruditzen zaizkit, ez dira bat batean ulertzeko modukoak. Bestetik, positiboa iruditzen zait aurrera begira pausu bat izan daitekeelako. Suitzan, Alemanian edo AEBtan egiten den moduan, hainbat gairen gaineko iritzia jasotzeko orduan, herritarren partaidetza bultzatzeko metodo ona iruditzen zait galdeketak egin ahal izatea.

**2.** Espainiako gobernuak argi utzi du zein jarrera duen Galdeketaren Legearen aurrean. Ofizialki ez dut uste ezer egiteko aukera izango denik urriaren 25ean, baina baliteke objekzio zibil moduko bat gertatzea egun horretan eta alderdiren batek bultzatzea kontsulta, sinbolikoki bada ere. Pena da kutsu politikoa duten gaietara murriztea horrelako kontsultak. Azpiegitura erraldoien kasuan, adibidez, ondo ikusten dut kontsulta egitea herritarrei, haien iritzia jasotze aldera.

### Elena Laka

**1.** Galdeketa planteatuta dagoen moduan, erabat demokratikoa iruditzen zait, demokraziaren oinarrian herritarren iritzia dagoelako. Dena dela, ez daukat oso garbi bukaeraraino eramateko legea den edo estrategia politikoaren baitan kokatu behar den guzti hau.

**2.** Espainiako gobernuak Auzitegi Konstituzionalean helegitea jarriko du Galdeketaren Legearen aurka eta baliogabetzea ekarriko du horrek. Ez dakit horri aurre egiteko beste baliabide juridikoren bat egon daitekeen. Ezertan geratuko zela jakinda, *mobida* guzti hau martxan jartzea ez da oso ulergarria bestela.

### Juan Kruz Mendizabal

**1.** Galdera demokraziaren ariketarik ezinbestekoena da, eta ondo legoke, gutxienez, Nafarroara ere zabaltzea... Kalean dagoen galdera xume hori egitea ukatzen bazaigu, demokrazia hau bigarren mailakoa litzateke. Antza denez, euskaldunok erantzunari diogu beldurra eta Espainiak galdera egiteari.

**2.** Galdeketa judizialki atzera botatzen badute eta EAJk negoziatu behar badu galdeketa beste zerbaiten truke, txarra litzateke Euskal Herriarentzat zein Espainiarentzat.

### Juan Jose Alvarez

**1.** Soluzioa izan behar zena arazo bihurtu dela uste dut. Ez dago benetako adostasunik, argi geratu denez, eta ezker abertzalearen babesa ez dut uste koherentea denik, utilitarista baizik. Legebiltzarreko gehiengoaren babesa jasotzea baliagarria da, noski, baina arazoak hor jarraitzen du. Egoeraren araberako arrakasta moduan ikus daiteke, baina egitura-metodologia bestelakoa izan beharko litzateke. Formak ez nau batere konbentzitzen.

**2.** Bost hilabeteko etenaldia etorriko da helegitea aurkezten dutenean. Horrenbeste energia prozesu guzti honetan inbertitzea ez dut batere argi ikusten. Bazegoen alternatiba bat gobernuaren errekurtsoa saihesteko: erreferendum izaera duen edozein kontsulta egiteko gobernuaren baimena beharrezkoa denez, Zapaterori baimena eskatzea zegoen, legean eskaera hori gaineratuz. Gainera, Zapateroren gobernuaren benetako jarrera ezagutzeko modua izango litzateke hori.

### Maite Aristegi

**1.** Forma eta eduki aldetik nahiko motz aurkeztu dute. Erabakitzeko dugun eskubidea bermatze bidean lehen urrats garrantzitsua izan daiteke, Espainiaren aurrean, Konstituzioaren marko itxia salatzeko. Baina Madrilek jarriko dituen oztopo guztiei ea nola egiten dion aurre EAJk, ausardiaz ala lege proiektua kaxan sartuta, alderdiaren ahots espainolistari kasu eginez.

**2.** Madriletik datorrena ikusita eta Urkullu eta konpainiari entzunda ikusita, zaila ikusten dut. Lurraldetasuna eta autodeterminazioa aintzat hartuko dituen marko berri bat lantzea ezinbestekoa da. Hori lortzeko gaurkoak baino alianza sendoagoak behar dira. Orain galdera da ze programa eta hautagaiekin aurkeztuko den EAJ hurrengo hauteskundeetara.

### Jose Ramon Elorza

IRITZI EMAILEA

**1.** Positiboa iruditzen zait horrelako urratsak ematea. Dena dela, ezkorra naiz Madrilgo gobernuaren jarrera ikusita. Oraindik demokrazia zer den ikasteko dute Madrilen; ezin dute Euskadi bere gogoz kontra eduki beste urte mordo baten. Euskaldunok, berriz, indarrak batzen asmatu beharko genuke, guztiok frente bat osatuz.

**2.** Ez dut uste egingo denik, Madriletik armada bidaltzeko gertu daude-eta; indarkeria zeinek erabiltzen duen argi geratuko litzateke orduan.

### ESANAK

**"Suitzan, Alemanian edo AEBtan egiten den moduan, metodo ona iruditzen zait galdeketak egin ahal izatea"**
**Mikel Lezamiz** > Soziologoa

**"Ez daukat garbi bukaeraraino eramateko legea den, edo estrategia politikoaren baitan kokatu behar den"**
**Elena Laka** > Abokatua

**"Antza denez, euskaldunok erantzunari diogu beldurra eta Espainiak galdera egiteari"**
**Juan Kruz Mendizabal** > Apaiza

**"Ez dago benetako adostasunik, eta ezker abertzalearen babesa ez dut uste koherentea denik, utilitarista baizik"**
**Juan Jose Alvarez** > Abokatua

**"Ea nola egiten dion aurre EAJk Madrili, ausardiaz ala legea kaxan sartuta, alderdiaren ahots espainolistari kasu eginez"**
**Maite Aristegi** > Abokatua

**Oraindik demokrazia zer den ikasteko dute Madrilen; ezin dute Euskadi bere gogoz kontra eduki beste urte mordo baten"**
**Jose Ramon Elortza** >Iritzi emailea

**ERLIJIOA** > OSPAKIZUNAK

# Parroki-erretiroa egingo dute Arantzazun, aste bukaeran

Juan XXIII.a Mugimenduak antolatu du egubakoitzetik domekara arteko erretiroa

Ehundik gora lagun elkartuko dira Arantzazun, tartean Puerto Rikoko gotzain Iñaki Mallona

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Juan XXIII.a Mugimenduak antolatuta, parroki-erretiroa egingo dute Arantzazun. Hain zuzen, egubakoitzetik domekara arte. "Mugimendua Puerto Ricon sortu zen duela 30 urte. Ekuadorren apaiz nengoela ezagutu nuen mugimendua eta Espainian egindako erretiroetan laguntzaile lanetan ibili naiz: besteak beste, Madrilen, Bartzelonan eta Murtzian", esan digu Anselmo Arrieta bergararrak. Hain justu ere, bera arduratu da Arantzazuko erretiroa antolatzeaz. "Hasiera batean Loiolan egin behar genuen, baina ezinezkoa izan zen". Egitaraua gertu dute: "Egubakoitz arratsaldean elkartuko gara eta afaldu ondoren hainbat hitzaldi egingo ditugu. Zapatuan egingo ditugu ekitaldi nagusienak, besteak beste, aitortzaren sakramentua. Domekan bukatuko dugu ospakizuna meza nagusiarekin". Erretiroa herritar guztiendako dago zabalik, eta parte hartu gura dutenek 619 94 05 36 telefonora dei dezakete. "Ehundik gora lagun espero ditugu", esan digu Anselmo Arrietak, "beste batzuen artean, Puerto Ricoko gotzain Iñaki Mallona etorriko da eta mugimenduaren sortzaileetako batzuk ere bai".


Arantzazun egingo dute erretiroa aste bukaeran. GOIENKARIA

**UDAKO IKASTAROA**

## Migrazioak aztertuko dituzte Oñatin

**E.M.** > BERGARA

*Los procesos migratorios: políticas y legislación en el marco de la globalización* izenburuko udako ikastaroa egingo dute asteon, Oñatiko R.M. Zuazola-Larraña institutuan. Irekiera ekitaldia gaur, astelehena, egingo dute, 09:00etan. Besteak beste, Josu J. Sagasti Jaurlaritzako Justizia sailburuordea, Lourdes Idoiaga Oñatiko alkatea eta Carlos A. Lista Soziologia Juridikoko institutuko zuzendaria izango dira bertan. Irekiera hitzaldia Roberto Marro Jaurlaritzako Inmigrazio zuzendariak egingo du. Bihar, martitzena, Munduko emakumeak izenburupean, saio irekia izango da kultura etxean, 17:00etan.

## Euskara 21 ekimenak urrats berria eman du asteon

Eguenean aurkeztu zituzten, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bultzatuta, Euskararen Aholku Batzordeak osatutako Oinarrizko Txostenaren nondik norakoak.

Bestalde, apirilaren 29an, Euskara 21 webgunea (*www.euskadi.net/euskara21*) martxan jarri zenetik zortzi mila bisitari izan ditu; 100 ekarpen labur jaso ditu eta 340tik gora iruzkin.

Euskararen Aholku Batzordeak egindako Oinarrizko Txostena egiten zazpi lagunek parte hartu dute, besteak beste, HAEEko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialeko zerbitzuburu Eneko Oregi bergararrak.



OIHANA ELORTZA

**OSPAKIZUNAK** > ARANTZAZUN

## Frantziskotarrek ekitaldiak egingo dituzte Oteizaren jaiotzaren mendeurrenean

'Arantzazu' aldizkariaren zenbaki berezia kaleratuko dute irailean: Jorge Oteizaren gaineko monografikoa, alegia

**M.B.** > OÑATI

Jorge Oteiza eskultorea jaio zela ehun urte bete dira, eta horren harira, hainbat ekitaldi antolatuko dituzte Arantzazuko frantziskotarrek. Hain zuzen ere, ospakizun gehienak irailaren 20an egingo dituzte. *Arantzazu* aldizkariaren zenbaki berezia egingo dute: Oteizaren gaineko monografikoa, alegia. Bestalde, Pedro Manterolak, Oteiza museoko zuzendari ohiak, hitzaldia emango du. "Gure asmoa da ekitaldi guzti hauei zabalkunde berezia ematea, eta aurkezpen ekitaldia egingo dugu oporren ondoren", esan digu Iñaki Beristainek. *Arantzazu* aldizkariko harpidedunek irailean jasoko dute zenbaki berezia etxean.

**NAZIOARTEKO JARDUNALDIA**

Arantzazuko frantziskotarrek egingo dituzten ospakizunez gain, beste hainbatean gogoratuko dute Jorge Oteiza. Besteak beste, urriaren 21etik 24ra Nazioarteko Jardunaldia egingo dute Oteiza Museoan. Gainera, Orion jaiotako artistaren obrarekin katalogo arrazoitua egiten dihardute. 2007ko azaroan hasi ziren lan horretan.

OMU KERAMIKAK
zeramika • bainuak
eraikuntzarako materiala
BILTEGIA/BULEGOAK: Meatzerreka 6 • Arrasate • 943 79 14 28 • Faxa.: 943 79 40 43
ERAKUSKETA: Ignacio Zuloaga 4 • Arrasate • 943 79 07 20



**KONTSUMOA** > BEHERAPENAK

# Bihartik irailaren 30era udako merkealdiak EAEn

Udaberria txarra izan da salmentetarako eta, horregatik, aukera onak egongo dira merkealdietan; genero asko dago oraindik dendetan



Familia bat jantzidenda bateko erakusleiho baten aurrean. GOIENKARIA

**GOIATZ ARANA** > BERGARA
Udako jantziak erabiltzeko moduko egun gutxi izan dira aurtengo denboraldian eta horrek eragin zuzena izan du salmentetan. Arrasateko Markiegi gizonezkoen jantzi dendatik adierazi digutenez, apirila ongi joan bazen ere, maiatzean eta ekainean gutxi saldu dute. Eta gauza bera esan digu Oñatiko Chic dendako Irma Juaristik ere: "Udaberria ondo hasi zen, baina azken bi hilabeteotan beherakada nabarmena izan da. Nik asko igarri dut". Kontsumoa bera geratuta dagoela uste du lehenak; eguraldi txarra eta jendearen exijentzia maila gero eta altuagoa direla eragileak, bigarrenak. Egoera horren aurrean eta salmentak bultzatzeko asmoz, hainbat tokitan deskontuak egiten hasi dira ekaineko azken egunetan.

Bihar merkealdiak hasiko dira, ordea, eta, beraz, guztietan erosi ahal izango da merkeago. Gainera, aukera onak izango direla espero da, kontuan izanik dendetan genero asko dagoela oraindik saltzeko, uda beteko arropa gehienbat. %30eko beherapena egiten hasiko dira leku gehienetan eta, hortik aurrera, salmenten erritmoak aginduko du.

**HAINBAT AHOLKU**
Merkealdien bezperetan, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolakundeak gogorarazi dio gizarteari merkealdiek ez dutela ekarri behar kontsumitzaileen eskubideen inolako murrizketarik. Era berean, hainbat gomendio egin ditu, erosketa egokia egiteko: erosi baino lehen hausnarketa egitea, artikulua benetan behar dugun edo ez birritan pentsatzea, produktuaren kalitatea eta salneurria aldentzea eta, finean, burua erabiltzea. Irailaren 30a izango da udako merkealdietako azken eguna, EAEn.

**AZPIEGITURAK** > AHT-REN KONTRAKO ELKARRETARATZEA

# Tren soziala aldarrikatu du ELA-k

AHT ez bezala, tren soziala egungo garraio arazoei irtenbidea emateko alternatibarik onena dela berretsi du sindikatuak

**T.MADINA/G.ARANA** > BERGARA
"Tren soziala bai, AHT ez" lelopean, ELA sindikatuko hainbat ordezkari batu ziren egubakoitz goizean Bergarako herriko plazan. "Egun ditugun garraio arazoei soluzioa emango ez dielako, sekulako sarraskia eragingo duelako eta kostu ekonomiko itzela izango duelako", ELA sindikatua, hasieratik, AHTren kontra egon dela adierazi zuten. Euren alternatiba tren soziala dela berretsi zuten, "ia herri guztietan geratuko den eta gizarte osoak erabiltzeko modukoa izango den trena", alegia.

**ESKAERA ERAKUNDEEI**
Gai horri buruz hitz egin nahi ez izana egotzi dio ELAk Eusko Jaurlaritzari eta elkarrizketa soziala eskatu dio; hori litzateke benetako kontsulta, sindikatuko kideen hitzetan.



Eskuorriak banatu zituzten herritarren artean. EDU MENDIBIL

> ENPRESA

### MU eta Gaztenpresa Fundazioaren arteko hitzarmena

Enpresen sorrera eta ekintzailetza sustatzea ditu helburu Mondragon Unibertsitateak eta Euskadiko Kutxako Gaztenpresa Fundazioak izenpetu berri duten akordioak. Horren eraginez, berrikuntzari eta ekintzaileetzari lotutako ikasketak egiteko hiru mila euroko bi beka sortu, ideiarik berritzaileenak saritzeko lehiaketak antolatu eta hitzaldi-zikloa egingo dituzte.

Hitzarmenak urtebeteko iraupena izango du eta automatikoki berrituko da urtetik urtera. Bi erakundeek elkarri lagunduko diote.



**Ainara Udaondo**> Huheziko irakaslea

# "Gradu-ondokoak kooperatiben alderdi identitario eta sozialari begiratzen dio"

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

**Maiatzean kooperatibagintzaren gaineko gradu-ondokoa jarri zuten abian Huhezi fakultateak, Mondragon Taldeak eta Lanki institutuak. Huheziko irakasle eta ikastaroaren arduradun Ainara Udaondok horren gaineko xehetasunak eskaini dizkigu datozen lerroetan.**

**Zertan datza kooperatibagintzaren gaineko ikastaroa?**

Huheziren eta Mondragon Taldeko Gestio Sozialaren artean abiatu dugun formazio eskaintza da. Kooperatibagintzaren biziberritzea eta ideia kooperatiboaren transmisioa du helburu.

**Zenbateko iraupena du?**

Maiatzean abiatu genuen, udan eten bat egingo dugu, eta abendura arte iraungo dute eskolek. Egubakoitzero biltzen gara bost orduz; batzuetan, Huhezin eta besteetan, Otaloran.

**Nolakoak dira klaseak?**

Oso partehartzaileak. Ikuspegi metodologikotik elementu ezberdinak konbinatzeko autua egin dugu. Batetik, irakasleen azalpenez osaturiko saio teoriko trinkoak ditugu. Bestetik, partehartzerako eta iritzi trukerako espazio zabalak bermatu ditugu. Eta azkenik, zuzeneko testigantza kooperatiboetarako tarteak utzi ditugu, kooperatibagintzan esperientzia duten protagonista esanguratsuak gonbidatuko ditugu tarteka.

**Zenbat lagunek parte hartzen dute horretan?**

Guztira, 28 ikasle ditugu; denak Mondragon Taldeko kooperatibistak. Hainbat errealitate eta sektoreetatik datozen ikasleak dira. Bi multzo nagusi ditugu: Fagor Taldea eta Eroski, baina badira bestelako kooperatibetako ordezkariak ere, hala nola, Alecop, Euskadiko Kutxa edo Auzolagun.

Ikasleen perfila oso da interesantea, kooperatibagintzan dihardutén pertsonak dira eta; esperientzia dutenak gai horietan. Ezaugarri horrek ahalbidetzen du teoria eta praktikaren arteko etengabeko zubiak eraikitzea eta gogoetak oso oparoak izatea.

**Pozik al zaude ikastaroak lortutako harrerarekin?**

Bai. Nabari da kezka eta sentsibilitatea dagoela kooperatibisten artean gai hauekiko eta beharra bide berriak jorratzeko.

**Zein da guzti honen jatorria?**

2005ean Mondragon Taldea osatzen duten kooperatibetan gogoeta zabala burutu zen. Hausnarketa prozesu hark kooperatibagintzaren identitate elementuetan jarri zuen begirada eta ideiak, formazioa eta eztabaida kooperatiboa bultzatzearen garrantzia azpimarratu zuen. Uneotan formazio sozial-kooperatiboari bultzada berri bat eman nahi zaio eta hezkuntza kooperatiboan aro berri bat zabaltzearen aldeko apustua egin du taldeak. Testuinguru horretan kokatu beharra dago gradu-ondoko titulu hau.

Nolabait, bi osagaik egin dute bat ikastaro horren eskaintzan. Batetik, Mondragoneko kooperatibetan identifikaturiko beharrizan bat dugu iturburuan. Eta bestetik, unibertsitate mailan, Lanki Ikertegitik azken urteotan kooperatibagintzaren gainean buruturiko ikerketa eta hezkuntza lanaren uzta. Lanki Ikertegitik badihardugu zortzi bat urte kooperatibagintzaren gaineko ikerketan eta material didaktiko sorkuntzan. Ibilbide horretan pilatutako jakintzak eta lanak eman dio gorputza formazio eskaintza honi.

**"Guztira, 28 ikasle ditugu; denak Mondragon Taldeko kooperatibistak"**

**"Nabari da kezka eta sentsibilitatea dagoela kooperatibisten artean gai hauekiko"**

**"Egungo gizartearen ulermenetik abiatu behar da kooperatibintzaz pentsatu ahal izateko"**

**Nolakoa da kooperatibagintzaren osasuna?**

Gradu-ondoko honek kooperatiben alderdi sozial eta identitarioan jartzen du begirada nagusiki. Badirudi diagnostiko aski konpartitua dela identitate kooperatiboa ez legokeela bere unerik osasuntsuenean. Esanahi gaurkotu bat, 'zertarako' bat, norabide bat, bistaratu eta marraztu beharra nabarmendu zuen Mondragon taldeko kooperatibetan burutu zen gogoeta prozesu hark. Badirudi azken hamarkadetan ez dela ideia kooperatiboaren transmisio eta gaurkotzelan eraginkorrik egin. Neurri handi batean, hutsune hori betetzera dator *Kooperatibagintzan* izeneko ikastaroa.

**Zeintzuk dira helburu nagusiak?**

Helburu oinarrizkoena Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren ezaugarrien inguruko ezagutza sakona eskaintzea litzateke. Abiapuntu moduan munduaren argazki gaurkotu bat eskaini nahi izan dugu. Gure ustez ezinbestekoa da egungo gizartearen ezaugarrien ulermenetik abiatzea kooperatibagintzaz pentsatu ahal izateko. Ikastaroan zehar identitate kooperatiboaren aspektu ezberdinak jorratuko ditugu: partehartzea edo demokrazia, garapen komunitarioa eta lankidetzaren psikologia. Horrez gain, ikuspegi pedagogiko batetik, partehartzaileak hezkuntza kooperatiboaren kudeaketan trebatu nahi ditugu. Eta azkenik, etorkizunera begira, kooperatibagintzaren galdegai eta erronken inguruko hausnarketa bultzatu eta, ahal den neurrian, aterabide posibleak marrazteko baliabideak eskaini.



Irudian, Ainara Udaondo irakaslea. GOIENKARIA

**2007/2008 ikasturteko ikastaroaren ondotik zer? Berriro antolatzeko asmoa aztertu duzue dagoeneko?**

Bai, asmoa da hurrengo urtean ere aurten hasitako lan honi jarraipena ematea eta bigarren edizio bat jaurtitzea. Edonola ere, lehenbiziko egitekoa aurtengoari txukun eta kalitatez erantzutea izango da, eta horretan dihardugu buru-belarri uneotan.

KULTURAK BATZEN GAITU
Badatoz Elgetako jaiak ere!
KAFE ANTZOKIA espaloia ELGETA
Ondo pasa jaietan!
Jaietan menu bereziak izango ditugu
Kafe antzokia - Maala 2 ELGETA - 943 78 90 85

## oharrak eta deialdiak

BERGARA
**> EHGAMen erakusketa bisitatzeko aukera**
EHGAM elkarteak *Historiako pertsonaia gay/lesbiana/transexualak* delako erakusketa jarri du Bergarako kultura etxean. Uztailaren 11 arte egongo da zabalik.

ARRASATE
**> Udal Euskaltegian matrikula egiteko**
Udal Euskaltegiaren udako ikastaroetako matrikulazio epea zabalik dago. EGA agiria atera, euskara sakondu, euskalkia hobeto ezagutu… aukera ezberdinak daude. Argibideak: 943 79 70 77.

BERGARA
**> Gazte Informazio Guneak, ordutegi berezia**
Gazte Informazio Guneak honako ordutegia izango du uztailean: 11:00etatik 14:30era eta 15:30etik 19:00etara. Abuztuan itxita egongo da. Errotalde Jauregian dago gune hori.

ARRASATE, BERGARA
**> 'Gomendatzen dizut!' lehiaketa deitu dute**
*Gomendatzen dizut! Merezi du* delako lehiaketa deitu dute Gazte Informazio Bulegoek. Oporretan ezagututako lekuen, zerbitzuen… gaineko gomendioak eskatzen dituzte. 12-34 urte arteko edozeinek parte har dezake. Argibideetarako, jo *www.aizue.com* webgunera.

ARETXABALETA
**> Yoga ikastaroa emango du Aredhanak**
Aredhana yoga eta psikoterapia eskolak yoga ikastaroa emango du uztaileko martitzen eta eguenetan, 20:00etan. Hasiberriendako ere egokia da. Argibideak: 616 96 57 95.

BERGARA
**> Txalaparta ikastaroa egongo da uztailean**
Jardun euskara elkarteak txalaparta ikastaroa antolatu du uztaileko lehenengo bi asteetarako, martitzen eta eguenetarako. Arrizuriagan izango da, 19:00etatik 21:00etara. Argibideak: 943 76 36 61.

ARRASATE
**> Udarako, bi ikastaro trinko dago AEK-n**
Udarako, bi euskara ikastaro trinko antolatu ditu AEK euskaltegiak, 16 urtetik gorakoendako. Uztailean eta irailean izango dira, hilabete bakoitzeko hiru astean, egunero hiru orduz. Argibide gehiago, 943 77 03 69 telefonoan edo *arrasate@aek.org* posta elektronikoan.

ARETXABALETA
**> Kantabriara irteera antolatu du Basotxok**
Kantabriara joango dira Basotxoko erretiratuak uztailaren 15ean. Izena emateko aukera dago uztailaren 8an edo 9an, euren egoitzan, 30 euro ordainduta.

ARETXABALETA
**> UDAk batzar orokorra egingo du egubakoitzean**
Aretxabaleta Kirol Elkarteak batzar orokorra egingo du egubakoitzean, uztailak 4, Arkupe kultura etxeko Zaraia aretoan, 18:00etan. Hau da gai zerrenda: aurreko bilerako akta onartzea; 2007-08 denboraldiaren berri ematea; 2007-08ko diru kontuen berri ematea; 2008-09 denboraldia aurkeztea; 2008-09ko diru kontuak onartzea; oso-osoko Jokalaria delako sariaren banaketa; eta eskaerak eta galderak.

BERGARA
**> Lehen Hezkuntzako umeendako udalekuak**
Udalekuak antolatu ditu Jardunek. Irailaren 1etik 4ra izango dira, Hondarribian. Bergarako Lehen Hezkuntzako edozein umek eman dezake izena. 52 euro da; Jarduneko bazkideendako, berriz, 49 euro.

ANTZUOLA
**> Jaietako marmitako lehiaketa deialdia**
Jaietako marmitako lehiaketan parte hartu gura dutenek badute izena emateko aukera: uztailaren 7a arte, udaletxean (943 76 62 46, *kultura@antzuola.net*). Edozein herriko gastronomia edo bestelako elkarteek, edo propio lehiaketarako osatutako antzuolarren taldeek parte har dezakete.

ESKORIATZA
**> Udako jatekoak prestatzen ikasteko**
Udako jatekoen gaineko sukaldaritza ikastaroa antolatu du Eskoriatzako Udaleko Gazteria zerbitzuak. Uztailaren 3an, 9an, 16an eta 23an izango dira eskolak, 20:00etatik 22:00etara. Izena emateko aukera dago eguenera arte, hilak 3: 943 71 44 07 / *gazteria@eskoriatza.net*). 15 euro da.

OÑATI
**> Bidegorriaren inguruko batzar irekia deitu du Txirrinka elkarteak etzirako, eguaztena**
Txirrinka bizikletazaleen elkarteak batzar irekia deitu du etzirako, Oñatiko kultura etxean, 19:00etan. Bidegorriaren gaia aztertuko dute: eman diren pausoak, egindako eta egiteko dauden aldarrikapenak, sor daitezkeen ideia eta ekimenak… Gaiarekin interesa duen edozein ondo hartuko dute.

943 25 05 05
goienkaria@goiena.com

## etxeko leihotik



**Usoa Agirre** > GOIENAko Telematika saileko arduraduna

# Plazak dantzariz betetzen zirenekoak

Arizkungo jaietan izan ginen joan den aste bukaeran, Baztanen. Beldur pixka bat bagenuen, zer egongo ote zen ez genekielako, baina plazako musika hasi bezain laster beldur guztiak joan zitzaizkigun. Trikitiaren lehen notekin herrian zeuden denak plazara hurbildu eta dantzan hasi ziren, horrexen zain baleude moduan. Eta gu ere haien atzetik, hainbeste jende, gazte eta heldu, neska eta mutil, dantzan ikusita zaila zen oinak geldi mantentzea. Han ez zen Patxi edo Lauetan Erdizkaren beharrik doinu hau edo bestea nola dantzatu esateko; denek zekizkiten dantzarako pausoak.

Urte batzuk atzera egin genuela zirudien. Hemen ere garai bateko erromeriak horrelakoak izango ziren. Gaur egun, ordea, guztiz bestelakoak izan ohi dira jaietako plazako dantzaldiak. Arizkunen jo zuen Trikidantz taldeak aste bukaera honetan Antzuolan jo balu, gauerdirako aspertuta ziren, plaza ia hutsik ikusita.

**"Gaur egun, ordea, guztiz bestelakoak izan ohi dira plazako dantzaldiak"**

Ez dut esan nahi tabernaz tabernako festa giroa txarra denik. Baina taberna askotan egoten den dantzarako musika entzunda, nahiago Arizkungo erromeria.

**> Uztailaren 12an guatekea egingo da Antzuolan. 70eko musika izango da eta garai hura bizi izan zutenak izango dira gehienak. Dantzatzeko adinik ez dagoenez, anima zaitezte!**

**> Antzuolako jaiak laster dira eta jai batzordeak prest du egitaraua. Aldaketa nabarmen bat ikusi dut; txistulariok egubakoitzean bakarrik egingo dugu diana. Lotarako ordu gehixeago, beraz.**

## debagoiendarrak kanpoan

**Oier Etxebarria** > Aretxabaleta

# "Txina utzi eta herrira bueltatzean, hainbat gauza botako ditut faltan"

JOKIN BEREZIARTUA > ARETXABALETA

**Lau urte daramatza Oier Etxebarria ingeniariak (Aretxabaleta, 1972) Txinako Zhuhai hirian. Bi milioi biztanle dituen hiria da. Hiri txikia, hain populazio altua duen herrialde batentzat. Copreci enpresak Txinan zabaldu zuen lantoki baten irekiera kudeatzeko joan zen eta eginbeharrekoak ondo bete ostean, laster bueltatuko da gurera.**

**Zhuhai hiri ezezaguna da guretzat. Non dago?**

Egia da Zhuhai Txina moduko herrialde batentzat hiri txiki bat dela, bi milioi biztanle "bakarrik" ditu-eta. Hong Kong-etik gertu dago, ordubetera itsasontziz. Guangdong eskualdean kokatzen da –guk *Kanton* deitzen diogu– eta bertakoak eskualdeko hizkuntzan mintzatzen diren arren –*kantondarra,* guretzat –, hizkuntza zabalduena mandarina da. Poliki-poliki bada ere, mandarina ikasten dihardut.

**Zertarako joan zinen?**

Lan kontuak direla-eta amaitu dut hemen. Copreci enpresarentzat dihardut lanean, orain lau urte hemen zabaldu genuen lantegi baten irekieran laguntzen. Denetarik egitea egokitu zait: fabrikazioa, prozesuak, ingeniaritza lanak, aduanak, salerosketak, kalitate-egiaztapenak…

**Nongo bizimodua aukeratuko zenuke, Aretxabaletakoa ala Zhuhaikoa?**

Aretxabaletakoa, zalantza barik. Hala ere, Zhuhai uzten dudanean, hemengo hainbat gauza botako ditut faltan, ziur. Besteak beste, egin dituen lagunak, eguraldia, masaje merkeak, mundu osoko jatetxeak edota karting-ak prezio onean eskura izateko aukera…



OIER ETXEBARRIA

**Urte bereziak**
Txinan bizitako lau urteak bereziak izan dira Oierrentzat; arlo pertsonal zein profesionalean asko hazi da

**Nola jartzen zara harremanetan zure jendearekin?**

Familiakoekin Skype eta Voipbuster (Internet bidezko telefonoa) bitartez. Lagunekin, aldiz, gehienetan posta elektronikoz komunikatzen naiz.

**Zein ezberdintasun daukate txinatarrek gurekiko? Nolakoak dira?**

Egia esan, txinatarrekin lanetik kanpo ez dugu harreman sendoa izatea lortu. Hori bai, gu moduan atzerritarrak direnekin asko adiskidetu gara. Izan ere, mundu osoko jendea dago hemen.

**Zein alde on eta zein alde txar ditu Txinak?**

Eguraldiak alde onak eta txarrak ditu aldi berean: batetik, ia urte osoan eguraldi epela eta, bestetik, hezetasun handia. Bestalde, oso interesgarria da mundu osoko jendea ezagutzea eta, gainera, bizimodua merkea da hemen. Han egin ezin daitezkeen gauza batzuk hemen egin daitezke, oso merkea delako. Adibidez, astean pare bat aldiz jatetxeetan bazkaltzea eta afaltzea.

**Zer botatzen duzu faltan Aretxabaletatik?**

Lagunak, familia eta mendia.

**Bueltatzeko asmorik bai?**

Urrian han izango gara. Lau urtez egin beharrekoak egin ostean, bagoaz bueltan.

## kale inkesta

# Bihar hasiko dira merkealdiak. Baduzu begiratu bat ematera joateko asmorik?



**Luis Zabala**
Langilea
Bergara

Ez naiz askotan joaten, baina oraingoan badut asmoa; udaberria ez da oso ona izan salmentetarako eta uste dut aukera onak egongo direla. Baina ez dut diru gehiegi gastatu gura, oporretarako nabil aurrezten.



**Yolanda Bakero**
Langilea
Bergara

Ez nekien bihar hasten direnik ere! Ez daukat joateko ohiturarik; nahiago dut geroroko uztea baino gustukoa aurkitzen dudan momentuan bertan erostea. Merkealdietako zalaparta ez zait batere gustatzen.



**David Alcaraz**
Langilea
Bergara

Joango naiz bai, komeni zait-eta! Gastu asko ditut eta merkealdiak aprobetxatuko ditut gauzak prezio hobean eskuratzeko. Arropa erosteko asmoa daukat eta altzariren bat edo beste aldatzeko ere aprobetxatuko dut.



**Ana Cabezas**
Langilea
Bergara

Deskontuak egiten hasi dira dagoeneko eta merkealdiak ere badatoz, bai. Nik ez dut hutsik egingo; ez dut asko eskatzen eta merkealdietan aurkitzen dudanarekin moldatzen naiz. Aurten, gainera, genero asko egongo da.

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

## goienkaria@goiena.com

BERGARA
**> Futbola Udal Pilotalekuan?**

Bergarako pilotazale baten kexa jaso dugu. Antza, Arrasateko Uarkape pilotalekura joan behar izaten dira astero palan jokatzera, Bergarako Udal Pilotalekuan ez dietelako uzten. Orain, harrituta, datorren asteburuan areto futboleko txapelketa Udal Pilotalekuan egingo dutela jakin du. Ez zaio logikoa iruditzen Kirol Zerbitzuaren irizpidea.

ARRASATE
**> Saharako umeen alde dihardutenei zorionak**

Arrasateko adineko emakume batek Saharako umeen alde ibarrean lanean ari diren guztiak zoriondu nahi ditu. Bere alabak Saharako umeak hartu izan ditu azken urteotan, eta umeen egoera hobetzeko egiten diren ekimen guztiak txalotu nahi ditu. Bide batez, Euskadiko Kutxan, La Caixan eta Kutxan gastuei aurre egiteko dirulaguntza emateko aukera dagoela gogoratu du.

BERGARA
**> Igerilekuan zakarrontziak daude**

Emakume batek haserre deitu zigun egubakoitzean. Bezperan Agorrosin igerilekuan izan zen, eta ixteko orduan harri eta zur geratu zen horrenbeste poltsa, paper eta horrelakoak berdegunean botata ikustean. Erabiltzaileei, gaztetxoei bereziki, zera gogoratu nahi die: zakarrontziak badaudela Agorrosinen eta mesedez, erabiltzeko.

## usteak uste

**Mirari Altube**

# Jaiak han, jaiak hemen

Jai giroan sartuta gabiltza; bete-betean sartuta ere. San Juanak bukatu dira Arrasaten eta San Pedroak hasi Eskoriatzan; Ferixa Nagusia, dator Elgetan; San Martinak, Aramaion; San Martzialak, Bergaran eta San Martin eguna, Gatzagan. Eta Antzuolakoak begi bistan. Egitarau txukuna gertatzeko ahalegina egiten dute udal guztiek, ez dut zalantzarik; hala ere herritarrik ez badago girorik ere ez. Ikusi besterik ez dago noiz izaten den benetako giroa jaietan: koadrilen egunean, herri egunean… edozein izen emanda ere herritarrek parte hartzen duten egunean. Hori ondo baino hobeto dakite Elgetan, eta Udalak jaietarako egin duen deia bikaina iruditu zait: *Jaiak zuk egiten dituzu onak, hartu parte!* Ea Aretxabaletan ikasten dugun.

## zorroztailea



**Juan Luis Azkarate**

# Gurpildun zezenak

"*Red Bull* multinazionalak ikuskizun itzela antolatu zuen atzo Iruñean. Iragarki bat grabatzeko, Bat Formulako Red Bull Racing eta Toro Rosso taldeetako bi auto ofizialek entzierroaren ibilbidea egin zuten. Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak gogoz babestu dute egitasmoa".

Berria > 2008-06-29


1 Formulako autoendako trabarik ez

Mundu mailako oihartzun frankoa ez zaie falta Iruñeko entzierroei, eta ez da nazioarteko publizitate kanpainaren batetan agertzen diren lehen aldia. Izan ere, orain urte batzuk *San Miguel* garagardo markak spota egin baitzuen New Yorken girotutako zezenen lasterketa bat erabiliz. Baina larunbatekoa desberdina izan zen. Markaren irudia zezena dela aprobetxatuz, *Red Bull* (zezen gorria, ingelesez) freskagarri marka ezagunak munduko 147 herrialdetan ikusiko den iragarkia grabatzeko, Bat Formulako bi auto 10-20 km/h-ko abiadan lasterkarien atzetik aritu ziren Santo Domingo ukuilutik zezen-plazara dauden 825 metroetan.

UPNkoak, gehienetan, Sebastian gotzaina bera baino tradizionalagoak izan bai; baina oraingoan, aldiz, guztiz arrotza den ekitaldia egiteko alfonbra gorria ipini diote *Red Bull*-ekoei; eta aldi berean, peñei hamaika ekitaldi antolatzeko baimena ukatu diete. Bide batez, esan beharra dago edari hau debekaturik dagoela Europa hainbat herrialdetan bere efektuak oso osasungarriak ez omen direlako, hain zuzen.

**"Guztiz arrotza den ekitaldirako alfonbra gorria ipini die UPNk Red Bull-ekoei"**

**"Ez dut uste ez Iruñak ezta San Ferminek zirko honen beharrik zutenik"**

Gutxi balitz, Udalak 70.000 mila euro ordainduko dizkio freskagarri enpresari Reyno de Navarra marka agertuko delako lasterketaren babesle komertzial gisa. Nik ez dakit nork nori egiten dion mesederik handiena Iruñeak *Red Bull*-i edo alderantziz; zeren eta, munduko jairik ezagunenetakoak izanik, ez dut uste ez Iruñak ezta San Ferminek ere berak zirko honen inolako beharrik dutenik. Horrela ikusi dute betiko peñek ere, eta abisatu dute *sasientzierro* honetan parte hartu zuten 150 korrikalariei (espero zirenak baino askoz gutxiago) betirako fitxaturik geldituko direla, patroiari traizioa egitearen akusaziopean. *Divinoek* –Julen Madina, Juan Pedro Lekuona eta abarrek- aurretik esan zuten ez zutela parte hartuko, kobratuko luketen bakarrak auto-gidariak izango zirela jakinean.

*Red Bull* bera ez ezik, Mikel Urmeneta izango da zirko honetatik etekin garbia aterako duen bakarrenetakoa. Baietz *Kukuxumuxu*-ren hurrengo kamisetetan gurpildun zezenak agertu!

Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Edu Mendibil **Erredakzioa** Mirari Altube, Maider Arregi, Goiatz Arana **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Alex Azkarate **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



**> ARRASATE**
Velez de Mendizabalen 'Bizi izan juat' liburua gazteleraz argitaratuko dute > 10



**> BERGARA**
Letania, meza eta txokolate jana gaur, San Martzial eguna ospatzeko > 11



**> OÑATI**
Kasablankako Urbieta gunean saldu bariko 17 etxebizitzak, berriro zozketara > 12



**SALTOA** Jauzi bikaina egiteko aukera eskaintzen du Usakok. Horixe da, erabiltzaileen esanetan, duen gauzarik onenetariko bat. JOSETXO ARANTZABAL

**OÑATI** > BERRITASUNAK USAKON

# Instalazio berriekin hornitu dute Usako, eta zaintzailea izango du laster

**EROSOTASUNAK**
Dutxak eta edateko ura ematen duten iturriak ipini dituzte, beste batzuen artean

**ZAINTZAILEA**
Noiztik aurrera eta zein ordutegitan egongo den zehazteke dago oraindik

**M.BIKUÑA/G.ARANA** > OÑATI

"Toki hau izugarria da; hondartza edo igerilekua izan barik, erreka izateak berak eta duen jauziak oso berezia egiten dute". Hala kontatu digu Joxe Felipe Anituak. Zapatu arratsaldean aurkitu dugu Usakon, bainua hartzen. Eibarkoa da, baina txikitatik ezagutzen du Usako, Bergarako lagunen bitartez. Ainhoa Axpe oñatiarra da, eta hark ere betidanik izan du Usakorako ohitura: "Ur ona, eguzkia hartzeko tokia... ez du ezeren inbidiarik", azaldu digu. Gainera, bere familiak baserria du auzoan, eta aita-amak ere Usakon ibilitakoak direla kontatu digu.

Usakon egin dituzten berrikuntzei dagokienez, begi onez ikusten dituzte biek, eta zaintzailea ipintzearena ere ideia ona dela uste dute: "Toki honek ez du horregatik duen xarma galduko. Gero eta jende gehiago dator, gazteak dira asko, eta beharrezkoa da zaintzaile bat izatea".

**ARAUTEGI BATEN PREMIA**

Oñatiko Udala duela hiru-lau urte hasi zen Usako nola kudeatu aztertzen. Izan ere, Oñatiko eta inguruko herrietako jende askok du bertara joateko ohitura bainua hartzera, jolastera edo egotera beste barik. Hori horrela, Udalak beharrezkotzat jo zuen gutxieneko arautegi bat zehaztea: "Toki publikoa da eta ahalik eta ondoen aprobetxatzea da helburua" adierazi digu Andoni Gartzia Kirol zinegotziak. Arrazoi horregatik, hainbat berrikuntza lan egin dituzte, Bainuko Uraren Kalitateari buruzko Erregе Dekretuaren baldintzetara egokitzeko. Lanen behin-behineko aurrekontua 65.200 eurokoa da, eta Ugarte Eraikuntzak enpresak egin ditu.



**INSTALAZIO BERRIAK** Aldagela, dutxak eta iturriak, gertu. GOIATZ ARANA

**BERRITASUNAK**

Dutxak eta edateko ura ematen duten iturriak ipini dituzte, besteak beste, eta egunotan belarhazia ereitekoak dira. Zaintzailearentzako aldagela ere jarri dute –komun eta guzti–, horixe baita berrikuntzetako beste bat: Usakon begirale bat egongo dela aurrerantzean. Zein egunetatik aurrera egongo den, ze ordutegi izango duen eta beste hainbat puntu zehazteke daude oraindik, ordea. Gune arriskutsuak eta jauzi egitekoak, bestalde, seinaleztatu egingo dituzte. Laster ekingo diote zeregin horri ere.

Andoni Gartzia zinegotziak azaldu digunez, gai delikatua da, eta pausuak seguru eman gura dituzte. Hiru sailen artean adostuko dituzte: Hirigintza, Zerbitzuak eta Kirol sailen artean, hain zuzen ere. Eguenean batuko da Gobernu Batzordea, eta egun horretan helduko diote gaiari.

Jose Mari Velez de Mendizabal > Idazlea eta historialaria

# "Sozialismoa garaile irten arte Arrasatera itzuliko ez zela zioen Jesus Trincadok"


Jose Mari Velez de Mendizabal. GOIENKARIA

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

**Jose Mari Velez de Mendizabalek (Aramaio, 1949) hainbat liburu idatzi ditu. Oraingoan 2000. urtean kaleratutako *Bizi izan juat* liburuaren erdarazko bertsioa argitaratu behar duela-eta, berarekin izan gara 1936ko gerragatik herritik alde egin behar izan zuen Jesus Trincado sozialista arrasatearraren bizitza kontatzen duen liburuaz berbetan.**

**Zergatik erabaki duzu liburuaren erdarazko bertsioa ateratzea?**

Ba, egia esan *Bizi izan juat* argitaratu nuenean nahiko triste geratu nintzen liburuan kontatzen den orduko Arrasate ezagutu zutenetako askok liburua ulertu ez zutelako. Izan ere, gehienek euskara maila baxua daukate. Bestalde, belaunaldi berriei ez zaie liburua interesatzen. Beraz, hasieran itzulpena egiteko gogorik ez banuen ere, batek baino gehiagok eskatu zidan liburua erdarara itzultzeko.

Hala, Arrasateko Udalari laguntza eskatu, eta baiezkoa jaso nuen. Diego Martiartuk egin ditu itzulpen lanak eta nik ontzat eman ostean kalera irtetea besterik ez da falta.

**Noiz arte itxaron beharko dugu liburuaren erdarazko bertsioa kalean ikusteko?**

Hori ez dago nire esku. Ea ahalik eta azkarren irteten den kalera. Niri dagokidanez, erdarazko bertsioarentzat entregatu dut material grafiko guztia. Ez dakit nolako formatua izango duen, baina espero dut euskarazkoaren antzekoa izatea, hots, erakargarria eta irakurterraza.

**Nor zen Jesus Trincado?**

Arrasateko Jesus sozialismoaren historiko bat zen, eta 1934ko erreboltan parte hartu zuen. Kartzelaratua izan zen orduan, eta 1936ko gerraren ondorioz, tamalez, alde egin behar izan zuen Arrasatetik. Urte batzuk Frantzian pasa ostean, 1950ean Uruguaira joan zen, Montevideora. Hiriburu uruguaiarrean hil zen pasa den 2006an, 96 urte zituela.

**Noiz izan zenuen berarekin lehen kontaktua?**

1975ean, badira urte batzuk dagoeneko... Gutunen bidez komunikatzen ginen eta oso harreman beroa eta etengabea zen. Astero bidaltzen ginen gutun bat gutxienez. Gutunetan, liburuan bezala, Trincadok bizitakoak agertzen dira. Hori bai istorioa nire begietatik ikusita dago kontatuta.

> **"Liburua orduko Arrasate ezagutzen zutenek euskara ulertzen ez dutelako itzuli dugu "**
>
> **"Nortasun handikoa, burugogorra eta kultura handiko pertsona zen Jesus Trincado"**

**Nolakoa zen zure liburuaren protagonista?**

Nortasun handiko gizona zen, oso burugogorra eta kultura handikoa; erdara maila oso aberatsa zuen. 1975etik aurrera, Franco hilda zela, izan zituen Arrasatera itzultzeko aukerak, baina ez zen itzuli. Sozialismoak garaitu arte itzuliko ez zela zioen. Bere egoera berean zeuden beste asko itzuli ziren, baina bera ez. Honek ez du esan nahi herriminik ez zuenik, ezta gutxiago ere. Arrasatera begira bizi zen Jesus, hots, Montevideon egon arren Arrasaten bizi zela zirudien. Eta egia esan, bere azken gutunetan ikus daitekeenez, penatuta hil zen, bai bere herrira itzuli ez izanagatik eta baita berak amesten zuen gizartea oso urrun zegoela ikusten zuelako errealitatetik.

**Liburua argitaratu ostean ba al duzu beste proiekturik?**

Bai, Euskonews aldizkari elektronikorako egin ditudan elkarrizketekin bilduma bat ateratzea pentsatu dut. Elkarrizketetan Euskal Herrian erreferenteak diren pertsonaiak agertzen dira eta dagoeneko eginda daude. Orain, beraz, formatua eman eta kaleraztea besterik ez da falta. Ea urte amaierarako kalean dagoen.

GERTAERAK > ERLEAK PROTAGONISTA

## Bi erlauntza erretiratu behar izan zituzten Kulturaten eta General Garro kalean

J.B. > ARRASATE

Aurreko astean San Juan jaiak izan ziren, eta egitarauan aurreikusita ez bazeuden ere erleak ere izan ziren festetako protagonista. Izan ere, udal zerbitzuek, aditzera eman dutenez, bi erlauntza erretiratu behar izan zituzten, bat Kulturaten eta bestea, General Garro kalean. Arrasatear askok, batez ere Seber Altuben aurkitzen ziren umeek une txarrak pasa zituzten.


Erlezain bat etorri zen erlauntzak kentzera. GOIENKARIA

**EZ DA HAIN EZOHIKOA**

Ez gaude ohituta horrelakoak gurean gertatzera. Baina udaltzainek jakinarazi dutenez, sasoi honetan hainbat erle berri jaiotzen dira eta leku berriak topatu behar izaten dituzte erlauntzak jartzeko.

Arrasateko bi erlauntzak kentzeko aditu bat etorri behar izan zen Eibartik, eta hamar minututan erleak kutxa batean sartu eta berarekin eraman zituen –irudian, erlezaina–. Beraz, egunotan erlauntza gehiago azaltzea posible denez, udaltzainei abisatzea komeni da, honako telefonora deituz: 943 79 14 39.



EPA ARRASATE

## EPAkoak Dublinen izan ziren

Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasateko helduentzako heziketa zentroetatik Dublinera irteera egin zuten maiatza amaieran. Berrogei pertsonak hartu zuten parte irteeran: hiru irakasle, 32 ikasle eta bost lagun. Eskoziako hiriburuan lau egunez izan ziren eta bertan, besteak beste, Trinity College unibertsitatea, Guinness Storehouse, St. Patrick katedrala, James Joyce eta Molly Malone eraikinak ezagutu zituzten. Eta, nola ez, hango pub famatuetako musika eta garagardoa dastatzeko aukera ez zuten galdu. Eguraldi ederra izan zuten eta primeran ibili ziren.



Irudian, 2001eko San Martzial eguneko igoera. ARTXIBOA

**JAIAK** > SAN MARTZIAL EGUNA

# Meza eta txokolate jana, gaurko eguna ospatzeko

Gaur San Martzial eguna ospatzen da; Udalak, bestalde, txosna esplotazioarako deialdia egin du

JASONE ZABALA > BERGARA

Datorren domekako San Martzialeko erromeriarako motorrak berotzen hasteko, gaur, San Martzial eguna ospatzen da Bergaran. Goizena goizerako, egitaraua prestatu dute. Horrela, 07:00etan, urtero egiten den moduan, Santa Marinako elizan kanpai jotzea egongo da. Ondoren, nahi duten herritar guztiek aukera izango dute Santa Marinatik hasita San Martzialera letania errezatuz egingo den igoeran parte hartzeko; horren ostean, meza izango da San Martzialeko ermitan eta amaitzeko, San Joxepe elkartekoek prestatutako txokolate jana egongo da nahi duenarendako indarberritzeko.

**TXOSNAREN ESPLOTAZIOA**

San Martzialgo zelaian dagoen txosnaren esplotazioa egiteko deialdia luzatu zuen Udalak. Lehen deialdira ez zen inor aurkeztu. Horregatik, Udalak epea luzatzea erabaki du. Interesa duen Bergarako irabaz asmorik gabeko entitate edo elkarte edoeta interesa izan dezakeen edonork bere eskaera egin dezake udaletxean bihar 13:00ak arte. Eskaera orriak udaletxeko idazkaritzan jaso ditzakezue.

**AHT** > PROTESTA EKITALDIA

# Zundaketen aurkako protestaldia egin dute

AHTren aurkako taldeak, lanen "interes publikoa" errotik gezurtatu nahi du

J. Z. > BERGARA

Pasa den eguenean Bergarako udaletxean Jaurlaritzaren ordezkariak bildu ziren lurjabeen ordezkaritza batekin AHT-a egiteko beharrezkoak dituzten zundaketentzako akordioak lortzeko. Bitartean, plazan kanpoan hogeitaka lagun bildu ziren protesta egiten *Zundaketarik ez, AHT- a gelditu* zioen pankartaren atzean.

**LUR DESJABETZEA**

Bergarako AHT- ren aurkako taldearen ustez "inpaktu ekologiko eta sozial larriak eragingo lituzkeen proiektu hori inposatzea, onartezinezko jukutria bat dela deritzogu eta errebelatu egin gaitu". Gaineratu dute, "AHT- ren aurrean, kalteturiko udalerri eta auzoek interes lokal kolektiboak defendatzeko eta erabakiak hartzeko ahalmen osoa izan behar dutela".



ANIOTZ GABILONDO

## Mizpirualde egoitzakoen bazkaria

Aurten, urtero lez, Bergarako Mizpirualde egoitzako 50 nagusi, Gorlan dagoen Altsasu elkartean egon dira beraientzat Altsasu elkarteak antolatzen duen egunean. Ekainaren 21ean, autobusez joan ziren bertara, eta jai giroa pasa zuten eguna. Bertan bazkaldu ondoren, soinujoleek alaitu zuten arratsaldeko giroa eta Aritzeta abesbatzak ere abestu zuen. Egoitzako arduradunek eskerrak eman nahi dizkie, sukaldari lanetan aritu zirenei, egun horren antolatzaileei eta baita bertan egon ziren soinujoleei ere.

## Bergarako 'Ahotsak' webgunearen aurkezpena

Barikuan *Bergarako Ahotsak* webgunearen aurkezpena egin zuten udaletxean. Horrek, azken 25 urteetan Bergarako euskara jaso eta lantzeko egin diren grabazioak jasotzen ditu. Guztira 140 pertsona inguruari egin zitzaizkien grabazioak, eta beraietako batzuk –30 bat lagun– webgunearen aurkezpenean egon ziren. Bertan nola nabigatu azaldu zuten eta ondoren, jasotako grabazioetako trikiti kopla batzuk abestu zituzten. Amaitzeko luntxa izan zuten.



JOSETXO ARANTZABAL

> TXANGOA

### Zarautz eta Zumaia arteko ibilaldia uztailaren 10ean

San Joxepe elkarteak antolatuta, Zarautz eta Zumaia arteko ibilaldia egingo dute datorren uztailaren 10ean. Irteera autobus geltokian izango da 08:30ean. Izen emateko azken eguna uztailaren 8a da.

> UDAKO ORDUTEGIA

### Gazte informazioko bulegoa abuztuan itxita egongo da

Uztailean ordutegi berezia izango du Bergarako Gazte Informazio Bulegoak. Horrela, uztailaren 3, 4, 10, 11, 17, 18, 24 eta 30an egongo da zabalik, 11:00tik 14:30era eta 15:30etatik 19:00etara. Abuztuan itxita egongo da.

**ETXEBIZITZAK** > OSOKO BILKURA

# Kasablankako Urbieta gunean saldu bariko 17 etxeak berriro zozketatzea erabaki du Udalak

Apirilean egindako zozketan saldu barik geratu ziren etxebizitza tasatuak bigarrenez zozketatuko dituzte

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Kasablanka-Iparra gunean, Urbieta eta Antzokua baserrien artean egiten diharduten etxe tasatuak berriro zozketatzeko erabaki hartu zuten maiatzeko osoko bilkuran. Hain justu ere, apirilean egindako zozketan eman barik geratu ziren 17 etxe tasatuak zozketatuko dituzte. Lehenengo zozketan 31 etxe saldu zituzten.

Horren harira, bigarren deialdia egin ondoren, saldu barik geratzen diren etxeak eraikuntza enpresaren esku geratuko dira, eta berak erabakiko du noiz, nori eta zenbatean saldu.

Deialdia Gipuzkoako Aldizkaria Ofizialean argitaratu ondoren zabalduko dute eskaerak egiteko epea. Erregistroa egiteko bulegoa non zabalduko duten ez dute zehaztu oraindik.

**ETXEAK, GARAJEAREKIN**

Bigarren deialdirako ez da aldaketarik onartu baldintzen zerrendan; hau da, lehenengoan erabilitako berberak hartuko dituzte kontutan: besteak beste, urteko diru-sarrerak 27.000 eta 54.165 euro artekoak izatea, eta jabetzan beste etxerik ez edukitzea. Gainera, Oñatin erroldaturik daudenek lehentasuna izango dute zozketan, baina ez da derrigorrezkoa baldintza betetzea.

Etxe guztiak garajearekin salduko dituzte, eta biek ala biek, babestutako etxebizitza kalifikazioa iraunkorra izango dute.



Urbieta eta Antzokua baserrien artean hasi dira etxe tasatuak eraikitzen. M.A.



Erretratuan, iazko haurrendako patinaje ikastaroa. GOIENKARIA

**KIROLA** > UMEAK

# Gaur hasi dute udako kirol kanpainako lehenengo txanda

Hain justu ere, 830 neska-mutiko ibiliko dira 17 kirol ezberdinetan uztailaren 11ra arte

**M.B.** > OÑATI

Udako kirol kanpainako lehen txanda gaur bertan hasi dute. Hain zuzen, 830 neska-mutiko ibiliko dira uztailaren 11ra arte, 17 kirol ezberdinetan. Horietatik, 249 txanda bakarrean emango diren kiroletan ibiliko dira; hau da, golf, waterpolo, igeriketa, aquagim, txikiendako batuka, gazteendako body jam eta arku tiroketan.

Urtero moduan, mini-tenisa (107 ume), tenisa (116) eta haurrendako patinajea (140) izan dira ume gehien erakarri dituztenak. Aurtengo berrikuntzetako batek ere eskaera asko jaso ditu; hain zuzen ere, batuka eta body jam ikastaroetan 130 neska-mutikok parte hartuko dute. Bestalde, lehen aldiz emango duten arku tiroketa ikastaroan hamar umek jardungo dute.

**TOKIA BIGARREN TXANDARAKO**

Lehen txanda bukatu ondoren, bigarrena egingo dute uztailaren 14tik 28ra. Horren harira, oraindik tokia dago kirol eskaintza eta talde batzuetan.

Era berean, tokia dago abuztuan egingo dituzten bi txandetan; hain justu ere, abuztuaren 1etik 14ra, eta 19tik 29ra. Hain zuzen ere, mini-tenis, tenis, badminton, waterpolo, igeriketa eta aquagim dira aukeran dauden kirolak. Izena kiroldegian eman behar da.

# Eslovakian egon dira Txantxiku Ikastolako 34 ikasle

Txantxiku Ikastolako Batxilergoko Lehen Mailako 34 ikasle eta bi irakaslek elkartrukea egin dute Kosice-ko (Eslovakia) ikasleekin, hamabost egunean. Autobusez egindako bidaian, besteak beste, Venezia, Viena, Praga eta Munich (ondoko erretratuan) bisitatu zituzten. Kosice-n bertan bederatzi egun egon ziren, eta bi ikastetxeek eskuartean darabilten proiektuaren inguruko jarduerak egin zituzten. Oñatiarrak gustura etorri dira Eslovakiara egindako bidaiatik. Elkartruke honen hurrengo pausua 2009. urteko ekainean emango dute; hain zuzen ere, Eslovakiako ikasleak Oñatira etorriko dira.




MIREIA BIKUÑA

> IKASTAROA

## Zen margogintzari buruzko tailerra hasiko dute gaur

Gaztelekuak antolatuta Zen margogintzari buruzko tailerra hasiko dute gaur. Hain justu ere, Txina, Japonia, India eta beste hainbat herrialdetako margo-tradizioan oinarritutako ikastaroa egingo dute uztailaren 4ra arte.

Tailerraren helburu nagusia da, nerabeen eta helduen artean espresibitatea eta sormena bultzatzea. Andy Kay margolaria izango da irakaslea eta bost saiotan ekialdeko margogintzaren oinarriak landuko dituzte: alde batetik, Zen margogintzaren lau altxorrak ezagutuko dituzte; hain zuzen, papera, tinta, harria eta pintzela; eta beste alde batetik, Tao margogintzaren elementuak landuko dituzte; besteak beste, tinta nola egin eta marrak eta borobilak margotzeko diziplina.

**ARETXABALETA** > AISIALDIA

# Eguaztenean emango diete hasiera 200 ume inguruk aurtengo udaleku irekiei

Uztailaren 23ra arte luzatuko dira aisialdi ekintzak; lau eta hamalau urte bitarteko neskek eta mutilek parte hartuko dute horietan



Joan den urtean ere San Fermin eguna ospatu zuten haurrek. MIRARI ALTUBE

**MIRIAN BITERI** > ARETXABALETA

Eguaztenean, uztailak 2, emango diote hasiera udaleku irekiei. Joan den urtean bezala, 200 ume inguruk parte hartuko dutela eta horiek zaintzen 30 bat begirale egongo direla jakinarazi digu Kultura teknikari Anabel Diezek.

1994tik 2004 urtera jaiotakoak parte hartuko dute. Betiko ordutegia izango dute, adinaren arabera zehaztuta. Hala, txikienak, lau urtekoak, goizean bakarrik ibiliko dira jolasean, 10:00etatik 12:30era. Gainontzekoak, goizez nahiz arratsaldez izango dira: goizean txikienen ordutegi berdinean eta arratsaldean, 15:00etatik 17:00etara

Urtero moduan, eskulanak eta jolasak nagusituko dira. Baina, horretaz aparte, ekintza bereziagoak ere egingo dituzte. Esaterako, San Fermin eguna ospatuko dute aurten ere. Egun bateko irteera ere egingo dute. Baina, lekua oraindik zehazteke dago.

**URAREN EGUNA**

Horrez gain, sei urtetik gorako haurrak, Galartzako baserri batera joango dira gaua pasatzera. Euskara Eguna, bestalde, ez da egongo. Horren ordez, Uraren Egun Erraldoia antolatuko dute begiraleek.

Ohikoa den bezala, azkenik, udaleku irekien azken egunean, uztailak 23, amaiera jaialdia egingo dute guztiek batera.

**ARETXABALETA** > KIROLA

# Uda Kanpainako lehenengo txandako ekimenetan 59 neska-mutiko apuntatu dira

Trialsin, patinaje, tenisa eta igeriketako taldeak osatuko dira; gaur, astelehena, hasiko dira ikastaro horien klaseak

**M.B.** > ARETXABALETA

Aurtengo Uda Kanpaina martxan da; 59 lagunek eman dute lehenengo txandako ikastaroetan parte hartzeko izena. Lau kirol jarduera irten dira.

Trialsineko taldea lau neska-mutikoz egongo da osatuta. Egunero izango dira klaseak, 10:00etan. Patinajea bi zatitan banatuko da: hasi berriak direnendako eta teknika hobetu gura dutenendako, hain zuzen. Hastapeneko ikastaroan bederatzi neska-mutiko arituko dira eta hobekuntzan, berriz, bost. Arratsaldetan izango dira horiek. Igeriketa klaseak ere berdin banatu dituzte. Hala, hastapenetan lau ibiliko dira eta hobekuntzan bederatzi. Gaur, astelehena, hasi eta uztailaren 11ra arte iraungo dute ikastaroek.

**TENISA, HARRERA ONENA**

Tenisa, baina, izan da harrera onena izan duen modalitatea. Guztira, 28 gaztetxok eman dute izena. Hiru talde eratu dira: 10:00etan, 11:00etan eta 12:00etan.

Lehenengo txanda horretan, bestalde, ez da futbol 8 zein frontenis txapeletarik izango, talde gutxi apuntatu dira eta. Kirol zerbitzutik azaldu dute, azkenik, batuka ikastaro bigarren txandara atzeratu dela.

> ARETXABALETA

## Egueneko osoko bilkuran Arkupe kudeatzeko lehiaketa berria deitzeaz eztabaidatuko dute

Datorren eguenean, uztailak 3, osoko bilkura egingo dute Aretxabaletako udaletxean, 18:00etan. Horretan eztabaidatu diren gaien artean, Arkupe kultura etxe berria kudeatzeko lehiaketa berria deitzea nabarmentzen da.

Jakina denez, Arkupe kudeatzeko lehiaketara ez zen enpresarik aurkeztu. Egoera horren aurrean, lehiaketa horren oinarrietan hainbat aldaketa egiteaz jardungo dute egueneko plenoan. Horrez gain, eraikinaren kudeaketarako bigarren deialdia egitea ere eztabaidatuko dute zinegotziek.

**ESKORIATZA** > KIROLA

# Datorren denboraldirako hitzarmena sinatu dute Sukiak eta Eskoriatzako Kirol Elkarteak

Eraikuntza enpresa kirol elkartearen taldeen ekipamenduaren gastuetaz arduratuko da datozen bi urteetan



Muñoz, Lasagabaster eta Egaña, sinatze ekitaldian. M.B.

**M.B.** > ESKORIATZA

Sukia Eskoriatzako Kirol Elkartearen babeslea izango da datozen bi urteetan. Kirol Elkarteko Manolo Muñozek eta eraikuntza enpresako Jose Manuel Egañak akordio horren hitzarmena sinatu zuten joan den eguenean Elorreta auzoan, Eskoriatzako alkate Pedro Lasagabaster ondoan zutela. Taldeen ekipamenduak babesteaz arduratuko da Sukia.

Agerraldian Muñozek jakinarazi zuen, datorren denboraldiari begira, elkarteak 70.000 euro izango dituela saskibaloi eta futbol-aretoko hiruna taldetan eta pilota eta mendi talde banan gastatzeko. Diru iturriak zeintzuk diren azaldu zuen jarraian: bazkideak, Udala, bestelako erakunde publikoak eta enpresa pribatuak, babesleak, publizitatea eta txartelak. Azpimarratu zuen 45 urte beteko dituen kirol elkartean "serio" egiten dutela lan.

**BATZAR OROKORRA**

Azkenik, datorren uztailaren 11n, 19:00etan, Eskoriatzako Kirol Elkarteak ohiko batzar orokorra egingo dutela iragarri zuen.

Sukiako Egaña eta Lasagabaster alkatea ere pozik azaldu ziren eguenean sinatutako hitzarmenarekin.



GOIENKARIA

# Genoveva Morenoren loreak

Eskoriatzako leiho eta balkoietako I. lehiaketak baditu dagoneko irabazleak. Olaeta plazan dagoen Genoveva Morenoren balkoi ederrak eskuratu du lehen postua. Morenok 250 euro jasoko ditu. Bigarren, Santa Anako Pepi Bejarano geratu da; eta hirugarren, kale bereko Txaro Oyon. 150 eta 80 euro irabazi dituzte, hurrenez hurren.


Pesako autobusek Bergara, Donostia eta Bilborekin lotzen dute Elgeta; Euskotrenekoek Eibarrekin. JOSETXO ARANTZABAL

**ELGETA** > GARRAIOA

# Abuztuan ez da taxi zerbitzurik eskainiko

## Uztaileko taxi ordutegian aldaketak egin dituzte eta autobus zerbitzuan ere izango dira aldaketak

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Uda denboraldian sartu garelaeta, garraio zerbitzuetan ordutegi bereziak izango dira; bai taxian eta baita autobusetan ere.

Taxi zerbitzua astelehenetik barikura bitartean Elgetan 07:40ean eta 11:45ean irtengo da eta Bergaran, Elgetara bueltatzeko 11:30ean. Ikasleak oporretan direnez, 14:40an Bergaratik Elgetarako autobus zerbitzua da kendu dutena. Uztailaren amaierara arte mantenduko dute ordutegi hori lan egunetan eta abuztuan ez da taxi zerbitzurik izango.

**PESA: BERGARA, DONOSTIA, BILBO**

Pesak autobus zerbitzua eskainiko du Donostia, Bilbo eta Bergarara joateko eta baita handik Elgetara etortzeko ere. Elgetatik Bergarara joateko astegunetan 09:20ean, 14:05ean eta 17:20ean daude autobusak; zapatuetan 09:35ean eta 17:50ean; eta domeketan 09:50ean eta 17:50ean. Bergaratik Elgetarako autobusak 08:35ean, 13:45ean eta 18:05ean irtengo dira astegunetan; 07:30ean eta 16:30ean zapatuetan; eta domeketan 10:05ean, 17:35ean eta 20:35ean.

Hala eta guztiz ere, autobus zerbitzuen ordutegi zehatzak jakiteko *www.pesa.es* helbidean kontsulta daiteke edo bezeroaren arretarako telefono zenbakira deitu: 902 10 12 10.

**EUSKOTREN: ELGETA-EIBAR**

Eibar eta Elgeta arteko zerbitzua Euskotrenek egingo du. Astelehenetik ostiralera lanegunetan 13.30ean eta 20:20an irtengo dira autobusak Eibartik Elgetara joateko; eta Elgetatik Eibarrerakoak 14:00etan eta 20:50ean. Domeketan eta jaiegunetan Eibartik 12:00etan eta 19:00etan irtengo dira Elgetarako autobusak; eta Eibarrerako Elgetatik 12:30ean eta 19:30ean.

**ANTZUOLA** > UDA KIROLA

# Helduendako uztaileko kirol ekintzak bertan behera geratu dira jende faltarengatik

## Umeek uztailaren 11ra arteko epea dute askotariko kirol jardueretan eta batuka saioetan izena emateko

**I.A.** > ANTZUOLA

Udarako aisialdi ekintzak antolatu ditu Udalak bai helduendako eta baita umeendako ere.

Helduendako *multifitness* eta patinaje ikastaroak eskaini dituzten arren, lehenengoan lagun bakarrak eman du izena eta hiru lagunek bigarrenean, hortaz, ikastaroak bertanbehera uztea erabaki dute. Udal kirol teknikari Juanlu Aranburuk esan digunez, "helduak nekatuta daudela dirudi eta kirola egitekotan nahiago dute euren kontura egin. Hortaz, ez dugu lortu gutxieneko kopurua aisialdi ekintzetarako taldeak osatzeko".

**UMEENDAKO BATUKA ETA KIROLAK**

Umeendako ere bi talde izango dira aukeran. Batean, mota askotako kirolak egiteko aukera izango dute. Futbola, saskibaloia edo pilota moduko ohiko kirolez gain, bestelako jolasak egingo dituzte begiraleekin, betiere umeen gustuak eta nahiak kontuan hartuko dituzte zein jarduera egin erabakitzeko. Uztailaren 21etik 30era, egunero, astelehenetik egubakoitzera, 11:00etatik 13:00etara jardungo dute aisialdiko kirol ekintzetan umeek.

Data berdinetan batuka saioak ere izango dira umeendako egunero 10:00etan. Batuka ikastarorako jadanik zazpi umek eman dute izena.

Ikastaro baterako zein besterako matrikula 15 euro da eta izena emateko Euskadiko Kutxan edo Kutxan ikastaro bakoitzari dagokion diru sarrera eginda, datuak udaletxera eraman behar dira uztailaren 11 baino lehen.

**LEINTZ GATZAGA** > OSTATUA

# Irailaren 11n zabaldu gura dute Soran Etxea hotela

## Gaztainuzketako mendi etxeak kudeatzen dituztenek zabalduko dute; hala ere, abuztuan zabalik izango dituzte mendi etxeak

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Aurrera doaz Soran Etxea hoteleko lanak, eta Montse Valerio ugazabaren esanetan uztailaren 15erako lanik garrantzitsuenak bukatuta izango dituzte. Hala ba, aurrez iragarritako epea bete eta irailean zabalduko dute: "Gure asmoa irailaren 11n zabaltzea da. Hala ere, ikusi egin behar baimen guztiak eskuratuta ditugun", argitu digu Valeriok. Hain zuzen aste honetan bertan argitaratu dute Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean hotel eta jatetxe jarduerako lizentzia eskaera.

Santiago kalean dagoen Soran Etxea bi izardun hotela izango da, eta arkitektura interesekoa izendapena dauka. Hamar logela izango ditu, horietako bat ezinduendako gertatua; 60 lagunendako jangela; 12 lagunendako jangela pribatua eta taberna. Eta ugazaben etxebizitza ere bertan egongo da.

Valeriok eta senarrak Udalarenak diren Gaztainuzketako mendi etxeak kudeatu dituzte azken 12 urteotan. Eta uztaila eta abuztuan ere halaxe egingo dute; irailaren 8an itxiko dituzte mendi etxeen ateak.


Gatzagako Santiago kalean dagoen Soran ostatua. MIRARI ALTUBE

**ARAMAIO** > ZUIAKO KOADRILA

# Zuiako Koadrilako Nagusien Topaketa

## Hamaikagarren edizioa da aurten eta Kanpezu eta Arabako Mendealdeko eskualdeak bisitatuko dituzte: izena emateko epea zabalik dago

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Urtero moduan aurten ere Zuiako Koadrilako nagusiak elkartu eta irteeratxoa egingo dute. Aurten, Kanpezu eta Mendealdeko eskualdeak bisitatuko dituzte. Irteera, Aramaion, 09:15ean izango da eskolako aparkalekuan.

Bisitak 10:30ean hasiko dira eta talde kopuruaren arabera zehaztuko dira; Pipaon, Urizaharra, Antoñana, Done Bikendi Harana eta Santikurutze Kanpezu bisitatzeko aukera izango dute talde desberdinetan banatuta. Bisitak egin ostean, 13:00etan, guztiak elkartuko dira, berriz, Lagranen meza entzuteko. 14:15ean, gero, bazkaria izango dute Lagraneko kiroldegian; Real Azteca mariatxiek girotuko dute bazkalostea. 17:30ean opari zozketa egingo dute eta dantzaldia Los Palmeras taldearekin. 20:00etan izango da itzulera.

Izena emateko epea uztailaren 3ra arte dago zabalik eta topaketan parte hartu nahi dutenek 26 euro ordaindu beharko dituzte. Vital Kutxan egin beharko dute ordainketa eta ziurtagiria izena emateko orriarekin batera aurkeztu beharko dute udaletxean.

# Kirola




**> PILOTA**
Renobales-Urrutikoetxea Elgetako lau t´erdiko finalean **> 16**




**> ZIKLISMOA**
Markel Irizar, bederatzigarren Espainiako erlojupekoan **> 20**

**> ELKARRIZKETA**
Sokoa Azkarate atezain arrasatearra fitxatu du Realeko nesken futbol taldeak. Beteranoa izan arren, gazte baten ilusioarekin doa Donostiara jokatzera **> 21**






**SARI BANAKETA** Saliha Khaldun, Rakel Llamas gasteiztarra eta Aziza Azaroual Oñatiko alkate Lourdes Idoiagarekin batera, atzo Torreauzon. JOSETXO ARANTZABAL

**ATLETISMOA** > TORREAUZOKO KROSA

## Marokoarrak nagusi eta errekor berria nesketan

**TORREAUZO** Nagusien proban 97 lagun lehiatu ziren; Varela oñatiar beteranoa, lehen debagoiendarra

**MARKA BIKAINA**
Mhamdi irabazleak 3 segundogatik ez zuen errekorra hobetu

**EDU MENDIBIL** > OÑATI

Ia-ia errekor bikoitza izan genuen atzo, Oñatiko Torreauzoko krosean. Hafid Mhamdi bakar bakarrik iritsi zen helmugara, baina esprint gogorra jo zuen: errekorraren bila zihoan eta hiru segundo soberan izan zituen Abdeslam Serrokh bere herrikidearen errekorra (22:07) hobetu ahal izateko. Nesketan, aldiz, Cristina Petit-en marka hobetu zuen Saliha Khaldunek, erraz gainera, 43 segundoko aldeaz. Marokorekin, munduko taldekako kros txapelduna izandakoa da Khaldun eta haren marka hobetu nahi duenak benetan zaila izango du etorkizunean.

Korrikalariek aparteko giroa izan zuten atzo goizean Oñatin: berorik ez (22 graduko tenperatura) eta zerua lainotuta. Torreauzoko hamaikagarren ekitaldia zen atzokoa eta 97 lagun izan ziren irteeran. Guztiak iritsi ziren helmugara, ibilbideko 7.600 metroak egin eta gero. Aspaldian afrikarrak izaten dira jaun eta jabe herri lasterketatan. Torreauzokoak ere sari bikainak ematen ditu, eta ibarreko korrikalariek ezer gutxi egin ahal izan zuten beltzaranen aurrean. Debagoieneko lehena Ramon Varela oñatiar beteranoa izan zen: Yeraik etxean dauka maisu ezinhobea. 52 urterekin sasoi betean da Ramon. Nesketan, Marije Velasco izan zen ibarreko lehena. Naiara Campo iritsi zen azkena, baina harentzat ere saria izan zen ondorengo zozketan. Azkenean, denok pozik etxera.




Gaztetxotan 10 lagun lehiatu ziren eta Unai Uribetxeberria izan zen irabazlea. J. A.

### sailkapenak

| GIZONEZKOAK | |
|---|---|
| 1. Hafid Mhamdi (Maroko) | 22:10 |
| 2. Abderahim Ayben (Maroko) | 23:00 |
| 3. Said Tbibi (Frantzia) | 23:20 |
| 10. Ramon Varela (Oñati) | 26:51 |
| 11. Gaizka Romero (Oñati) | 26:57 |
| 16. Jose Luis Barrena (Oñati) | 28:06 |
| 19. Iñigo Regueiro (Oñati) | 29:11 |
| 20. Iker Sarabia (Arrasate) | 29:35 |
| 23. Iker Gorostiaga (Oñati) | 30:08 |
| 26. Cesar Diez (Arrasate) | 30:16 |

| EMAKUMEZKOAK | |
|---|---|
| 1. Saliha Khaldun (Maroko) | 25:23 |
| 2. Rakel Llamas (Gasteiz) | 27:04 |
| 3. Aziza Azaroual (Maroko) | 29:43 |
| 4. Marije Velasco (Arrasate) | 33:04 |
| 7. Amaia Bernal (Oñati) | 35:36 |
| 8. Monica Muñoz (Oñati) | 38:11 |
| 9. M. Carmen Paredes (Arrasate) | 38:35 |
| 11. Mari Jose Gil (Arrasate) | 39:43 |
| 12. Lierni Axpe (Oñati) | 42:22 |
| 13. Nerea Altube (Oñati) | 45:52 |

**PILOTA** > ELGETAKO LAU T'ERDIKO FINALERDIAK

# Renobales nagusitu zitzaion Onzalori eta Urrutikoetxearen aurka du finala

Kadeteen partiduak politak izan ziren eta finala Urbietak eta Galartzak jokatuko dute; seniorretan, ostera, Renobalesek eta Urrutikoetxeak

**MIRARI ALTUBE** > ELGETA

Elgetako pilotalekua bete egin zen egubakoitzean lau t'erdiko finalerdiak ikusteko. Giro bikaina izan zen harmailetan eta partidu politak ikusi zituzten, bai kadeteenak, bai seniorrenak.

**PARTIDU LUZE ETA BORROKATUAK**

Kadeteen lehen partiduan, Urbietak Juanenea hartu zuen mendean (22-20). Partidu luzea eta borrokatua izan zen eta zaleak oso gustura geratu ziren ikusitako jokoarekin. Bigarren norgehiagokan, Galartza nagusitu zitzaion Taintari (22-18) eta hori ere partidu luzea eta polita izan zen.



Onzalo eta Renobales norgehiagokan egubakoitzean, Elgetan. JOSETXO ARANTZABAL

Senior mailan Renobalesek eman du ezustekoa; lehenengo Aitor Mendizabal antzuolarrari irabazita final laurdenetan, eta orain Onzalo garaituta (22-14). "Onzalo eta Mendizabal ziren txapelketako faboritoak, baina Renobalesek momentu ezin hobean dagoela erakutsi du, eta txapelketa ederra egiten dabil", jakinarazi digu Juan Luis Ubera antolatzaileak. Seniorrek jokatutako bigarren partidua, ostera, Urrutikoetxeak irabazi zuen Beroizen aurka (22-11).

**FINALAK EGUBAKOITZEAN**

Finalak egubakoitzean, uztailak 4, jokatuko dituzte (22:00). Kadete mailan, Urbietak Galartza izango du aurrez aurre eta seniorretan, Renobalesek Urrutikoetxea.

Faboritoa Urrutikoetxea da, baina Uberak dio Renobales txapelketa bikaina egiten dabilela, eta kontuz ibili beharko dela: "Iaz antzekoa gertatu zen Mendizabalekin eta irabazi egin zuen". Hortaz, zaleek ikuskizun polita izango dute pilotalekuan.

**sailkapenak**

| TXAPELDUNA | URTEA |
|---|---|
| Muruamendiaraz | 1998 |
| Leiza | 1999 |
| Castellanos | 2000 |
| Leiza | 2001 |
| Oinatz Bengoetxea | 2002 |
| Sorarrain | 2003 |
| Zapirain | 2004 |
| Berasaluze IX | 2005 |
| Ollo | 2006 |
| Mendizabal | 2007 |

**PILOTA** > UDABERRI TXAPELKETAKO FINALAK

# Añorga elkarteko Hernandez txapelduna seniorretan

Zapatuan jokatu zituzten lau t'erdiko Udaberri Txapelketako finalak Bergarako pilotalekuan; ikusle gutxi hurreratu zen

**M.A.** > BERGARA

Gipuzkoako pilota federakuntza iaz hasi zen antolatzen Lau t'erdiko Udaberri Txapelketa Herri Arteko Txapelketa jokatzerik ez zuten pilotariendako. Bergaran jokatu dute aurten eta zapatu arratsaldean izan ziren finalak. Herriko antolatzaileak oso gustura daude egindako lanarekin, nahiz eta debagoiendarrik ez izan finalean. Lau bergararrek jardun dute txapelketan eta euretatik bi seniorrak faboritoak ziren. Joan zen astean jokatutako finalerdietan, baina, biak jausi ziren: "Bat gaixotu egin zitzaigun, eta sukarrarekin jokatu behar izan zuen. Besteak txapelketa ederra egin du, baina egun txarra tokatu zitzaion finalerdietan eta galdu egin zuen. Hortaz, pena hori geratu zaigu", jakinarazi digu Reyes Azkoitia entrenatzaileak.

**SENIORRAK PAREKATUTA**

Kadeteen mailan, Lazkao Kirol Elkarteko pilotari bik elkarren aurka jokatu zuten, eta Urretabizkaia nagusitu zitzaion Bereziartuari (7-22). Gazteen mailan, Hernani elkarteko Bilbao zuberotarrak Zazpiturri elkarteko (Amezketa) Jon Otegi hartu zuen mendean (22-8). Eta seniorretan, Añorgako Hernandez nagusitu zitzaion Eibarko Erañari (22-19). Lehen bi partiduetan nahiko garbi agertu zen irabazlearen nagusitasuna, baina seniorrena oso parekatuta egon zen, eta bietako edozeinek izan zuen irabazteko aukera.



Pilotari gazteak finala jokatzen, zapatuan. JOSETXO ARANTZABAL

Kayak Taberna
Abuztuan eguneko menua
Terraza ederra, sekulako giroa!
Parking ederra
09:00etatik zabalik!
Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11
• Afariak
• Plater konbinatuak
• Ogitartekoak
• Hanburgesak
• Sandwichak
• Entsaladak


Zure bizimodurako txartel egokia
VISA
EURO 6000
VISA GAZTE
BERRIA
gaztekutxa
Orain, VISA Gazte berriari esker, zure poltsikoa erosoago ibiliko da. Begira:
Zure ordainketak atzeratu egin ditzakezu. Eta, berehala ordaindu nahi izanda ere, hurrengo hilabeteko lehen egunera arte ez duzu ezer ordainduko.
Erosketa bakoitzeko, puntuak metatuko dituzu (5 euroko puntu 1), eta gero puntuok hainbat opari ederrengatik trukatu.
3 hilabete interesik gabe lehenengo atzerapen edo geroratzearekin, 2009ko urtarrilaren 31 baino lehen egiten baduzu.
Beherapen eta baldintza bereziak izango dituzu.
Segurtasuneko alerta, aseguruak barne… eta askoz gehiago!!
Informa zaitez hemen: www.gaztekutxa.net
4918 4321 9999 9999
03/09
MONICA BERGARA ETXEBERRIA
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa


Gorbeiako
Merkealdia-rekin
UDAZ GOZATUKO DUZU
GORBEIA
errazago, azkarrago, erosoago, merkeago eta orain...GERTUAGO!
BIHARTIK AURRERA
Carrefour
DECATHLON
Norauto
BRICO DEPOT
i'm lovin' it
merkal calzados
King Jouet
YELMO CINES GORBEIA
IMAGEN 21



Eskoriatzako areto futboleko taldea partidua jokatzen aurtengo denboraldian. GOIENKARIA

**ARETO FUTBOLA** > ENTRENATZAILEEN X. KONGRESUA

# Espainiako entrenatzaile onenak elkartuko dira asteburuan Eskoriatzan

Berbaldiak, mahai ingurua eta partiduak izango dira; gainera, ANEFS 2008 sariak banatuko dituzte zapatu gaueko afarian

**MIRARI ALTUBE**> ESKORIATZA
Espainiako areto futboleko entrenatzaileen elkarteak, ANEFS, X. kongresua egingo du uztailaren 4tik 6ra, Eskoriatzan. Iñaki Ugarteburu Kirol diputatuak iragarri zuen joan zen astean, eta aipatu zuen ahalegin handia egin dutela halako ekitaldi garrantzitsua Gipuzkoara ekartzeko.

Ekitaldiaren garrantzia azpimarratu du Eskoriatza Kirol Elkarteko presidente Manolo Muñozek ere: "Sekula ez da ospatu halako herri txikian, beti hiri handietan: Zaragoza, Lugo… Eta ohore handia da bai herriarendako, bai kirol elkartearendako". Narciso Pavo eskoriatzarra dabil, gainera, antolaketa lanetan beste batzuekin batera: "Kirol elkarteak zuzendaritza batzorde arduratsua eta langilea duela ikusi dute; izan ere, antolaketa lanak samurtzen ahalegindu gara uneoro bai elkartea, bai Udala", gaineratu du Muñozek.

**BERBALDIAK ETA PARTIDUAK**
Areto futboleko entrenatzaile onenak elkartuko dira aste bukaeran: Azkar Lugo taldeko Bruno Garcia; Interviu Fadesako Jesus Candelas; Errumaniako 21 urtez azpiko hautatzaile Jean Cosac… Eta berbaldiak, mahai ingurua, partiduak eta beste ekitaldi asko izango dituzte hiru egunetan. Egubakoitzean, uztailak 4, aurkeztuko dute kongresua kiroldegian (17:00), eta, ondoren, berbaldi bi egongo dira. Batzar orokorra egingo du gero ANEFS elkarteak Ibarraundi museoan (19:45), eta zuzendaritza batzordea hautatuko du. Bukatzeko elkarteko bazkideen arteko partidua jokatuko dute (21:15).

Zapatuan, uztailak 5, berbaldiak izango dituzte goiz eta arratsaldean. Eta mahainguruarekin bukatuko dute; hizlarien artean izango dira Irango hautatzaile Cristina Avellan, San Cugat herriko (Bartzelona) kirol psikologo Pep Marí eta Moises Rodriguez kirol kazetaria. Ondoren Euskadi eta Aragoiren arteko partidua jokatuko dute (20:30), eta gero Mendigoia hotelean festa-afaria izango dute. Afalostean, ANEFS 2008 sari banaketa egingo dute.

Domekan esango diote agur kongresuari partidu bi jokatuta: euskal jokalariekin osatutako taldea Eskoriatzaren aurka (10:00) eta Ohorezko Mailako jokalarien arteko partidua (11:30).

**DEBAGOIENA EZAGUTZEN**
Kongresuak iraun bitartean irteerak ere egingo dituzte Eskoriatzara etorritakoek: Gatzagako gatz museora; Arantzazura eta Arrikrutz kobazuloetara; Urkulu urtegira; eta zelan ez, Eskoriatzako txokorik esanguratsuenetara.

ESANAK

**"Areto futboleko entrenatzaileen elkarteak lehenengoz egingo du kongresua halako herri txikian, eta ohore handia da"**

**M. Muñoz** > Eskoriatza Kirol Elkartea

**ARETO FUTBOLA** > 24 ORDUKO TXAPELKETAK

## 20 taldetik gora Bergara eta Arrasateko txapelketetan

Aste bukaeran dira biak, eta Arrasatekoa Inoren askatasuna eskatzeko da

**M.A.** > BERGARA
24 orduko areto futbol txapelketak antolatu dituzte Bergaran eta Arrasaten. Aste bukaeran izango dira biak: lehenengoa, egubakoitzetik (19:00) zapatura, eta bigarrena, zapatutik (12:00) domekara. Egubakoitzean bukatu zen izena emateko epea bietan, eta 20 taldetik gora ibiliko dira norgehiagoketa bietan.

**BERGARAN, BTLSK ANTOLATUTA**
San Martzial jaien barruan antolatu du BTLSk Bergarako txapelketa, eta Udal pilotalekuan jokatuko dute. Egubakoitzean egin zuten batzarra antolatzaileek zenbat talde izango diren jakin eta azken kontuak lotzeko; orduan 19 taldek zuten emanda izena. Antolatzaileen esanetan, baina, gehiago izango dira epea domeka gauera arte luzatzea erabaki dutelako. Taldeetako bat emakumezkoek osatu dute, BTLSko neskek hain zuzen, eta beste talde bat Eskoriatzakoa da, Arrasateko Zaldibar txapelketan bigarren geratutakoa.

Batzarrean erabaki zuten, gainera, futboleko arauak erabiliko dituztela, baina faltak adierazteko orduan areto futbolekoak hartuko dituztela kontuan.

Egubakoitzean (19:00) hasiko dute txapelketa eta hiru talde egingo dituzte ligaxka eran jokatzeko. Zapatu eguerdia arte izango da hori (15:30), eta ondoren, final laurdenak eta finalerdiak etorriko dira. Antolatzaileek 21:00ak inguruan bukatzea aurreikusi dute.

**ARRASATEKOA, INOREN ALDE**
Arrasateko txapelketa Ino Galparsoro alkatearen askatasuna exijitzeko antolatu dute, "gure alkate Inori maitasuna kiroltasunez adierazteko". 26 taldek eman dute izena, gehienak arrasatearrak, baina badaude inguruko herrietako hainbat.

Orain arte ez bezala, Uarkapen jokatuko dituzte partiduak: "Zaldibarren baino giro hobea eta beroagoa egongo dela uste dugulako", diote antolatzaileek. Hala ere, talde kopuruaren arabera Zalbibar ere erabil dezakete partidu batzuk jokatzeko. Oraindik ez dute erabakirik hartu antolatzaileek; horretarako, eta kanporaketak zehaztuko dituen taldeen zozketa egiteko bihar daukate batzarra.

Zapatu eguerdian hasiko dute txapelketa, eta domeka eguerdira bitartean jardungo dute norgehiagokan. Sari bereziak egongo dira neskendako eta talde mistoendako.



GOIATZ ARANA

## Irrati kontrol bidezko autoei begira

Arrasateko Dos Pistones irrati kontrol bidezko elkarteak autoen erakustaldia egin zuen atzo, Eskoriatzan. 1/8 Rally Game, 1/18 elektrikoak eta 1/8 Monster autoak erakutsi zituzten Santa Marina plazan jarritako ibilbidean. Kiosko gainetik gidatzen zituzten auto txikiak, eta konponketa gunea jarri zuten atzeko partean.

TXIRRINDULARITZA > ESPAINIAKO TXAPELKETA

# Markel Irizar gustura erlojupeko bederatzigarren postuarekin

27,7 kilometroko erlojupekoa gogorra izan da, haizea aurka izan dute eta 36 gradu

Lehen euskalduna izan da (34 minutu, 31 segundo) berdinduta zortzigarrenarekin



Markel Irizar txirrindulari oñatiarra bizikleta alboan. GOIENKARIA

**MIRARI ALTUBE** > BERGARA
Espainiako Txapelketa jokatu dute aste bukaeran txirrindulariek Talavera de la Reina herrian (Toledo). Bertan izan da Euskaltel-Euskadiko Markel Irizar oñatiarra, Egoitz Martinez eta Josu Agirre taldekideekin batera. Zapatuko erlojupekoan bederatzigarrena izan da Irizar 34 minutu eta 31 segundo eginda, eta txapeldunarengandik minutu bat eta 32 segundora geratu da. Lehen euskalduna izan da bera. Domekako iraupen-lasterketan ere hartu du parte oñatiarrak.

**BERO HANDIA ETA HAIZEA KONTRA**
Denboraldiko lehen zatiko azken lasterketak izan dira aste bukaerako biak Irizarrendako: "Otsailean oso gogor hasi nuen denboraldia, eta ez da samurra mantentzea. Horregatik gustura nago egindako denborarekin, zortzigarrenarekin berdinduta geratu naiz-eta. Izugarrizko denbora egiteko itxaropenik ere ez neukan", dio. 27,7 kilometroko ibilbidea egin dute erlojuaren aurka, laua baina lehen kilometroak goranzko joerarekin, eta bero handia izan dute, 36 gradu: "Uste baino gogorragoa izan da, haizea izan dugulako kontra hasieran eta bero egiten zuelako". Irizarrek onartu du beroarekin ondo ibili izan dela, baina lehenengo bero horietara oraindik ohitu barik izaten dela gorputza.

**TXAPELDUNA LEON SANCHEZ**
Erlojupeko txapelduna Luis Leon Sanchez (Caisse d'Epargne) murtziarra izan da 32 minutu eta 59 segundorekin. Faborito nagusia hirugarren geratu den Ivan Gutierrez zen (Caisse d'Epargne) –lau aldiz Espainiako erlojupeko txapelduna–, baina Kantabriakoa ez da batere ondo egokitu berora, eta irabazleak baino 56 segundo gehiago egin ditu: "Ez da ezustekorik egon sailkapenean, faborito nagusia hirugarren geratu da, baina lehenengo postuetan geratu diren hirurak ziren faborito. Laugarrenetik aurrera, ostera, oso parekatuta egon gara batzuk, 30 segundoren bueltan", argitu digu txirrindulari oñatiarrak. Leon Sanchez txapelduna oso pozik zegoen, bi urtetan txapeldunorde izan eta gero irabaztea lortu duelako.

**IRAUPEN-LASTERKETA**
Atzo, domeka, 204 kilometroko iraupen-lasterketa egin dute. Hiru buelta eman behar izan dizkiote zirkuitu bati, tartean 7 kilometroko mendate gogorra duela. Gainera, zapatuan legez, izugarrizko beroa izan dute, 40 gradu Talaverako helmugan; ondorioz, lasterketa gogorra izan da: "Erlojupekoan egindako esfortzu handia igarri egingo nuela banekien, baina ahal den guztia ematen saiatu naiz ala ere", dio Irizarrek eta gaineratu du: "Txirrindulari batzuk etxetik etorri dira atseden hartuta, eta hori igarri egin zaie". Faborito nagusia Alejandro Valverde (Caisse d'Epargne) zen, eta ez du hutsik egin murtziarrak. Oscar Sevillari (Relax Gam) gailendu zaio esprintean (05:13:13), azken 30 kilometroak biek bakarrik egin eta gero.

Denboraldiko lehen zatiko azken lasterketa izan da Irizarrendako: "Orain atseden hartuko dut, eta gero bigarren zatiari begira jarriko naiz".

ARETXABALETA KE

## UDAren batzarra uztailaren 4an

**M.A.** > ARETXABALETA
Aretxabaleta Kirol Elkarteak batzar orokorra egingo du egubakoitzean (18:00) kultura etxeko Zaraia aretoan.

Aurreko denboraldiaren berri emango dute lehenengo, baita diru kontuen gaineko azalpenak ere. Eta 2008-2009 denboraldia aurkeztuko dute gero. Eta aurten, lehenengoz, *Oso-osoko jokalaria* izeneko sariak banatuko dituzte. Zuzendaritza batzordeak proposatu du sari banaketa hori, beste balore batzuk bultzatzeko asmoarekin.

BERGARA KE

## Uztailak 4an Bergara KEren batzarra

**M.A.** > BERGARA
Bergara Kirol Elkarteak urteko batzarra egingo du egubakoitzean, kultura etxean. Lehen deialdia 19:00etan da, eta bigarrena, 19:30ean.

Pasa denboraldiko kirol balantzea egingo dute zuzendaritza batzordeko kideek, eta diru kontuak aztertuko dituzte beste gai batzuen artean. Datorren denboraldira begira, kuoten eta helburuen gainean jardungo du Pedro Rico presidenteak.

MENDIA

## Besaidek lau ibilaldi egingo ditu uztailean

**M.A.** > ARRASATE
Arrasateko Besaide Mendizale Elkarteak lau ibilaldi gertatu ditu uztailerako. Domekan, uztailak 6, Santurtzi, Serantes eta Areetako hondartza ezagutuko dituzte. uztailaren 12an, Pagoeta eta Zarautz aldera joango dira mendi bizikletan ibiltzera. 19an eta 20an, ostera, eskalatzera joango dira Salvatierra de Escara (Zaragoza). Eta uztailaren 20an, Urkiagako portua eta Orreaga inguruak ezagutuko dituzte.

Sokoa Azkarate > Futbol atezaina

# "Beteranoa izatea da orain dudan dohain onena "

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

**Sokoa Azkarate arrasatearrak Realeko nesken futbol taldean jokatuko du datorren urtean, Superligan. Azkaratek 29 urte ditu eta 12 urte daramatza futbolean jokatzen, Mondran. Orain, betiko taldea utzi eta esperientzia berri bat hasiko du futbolaren goreneko mailan.**

**Noiz hasi zinen futbolean jokatzen?**

Gaztetan hasi nintzen. Lehenengo saskibaloian jokatu nuen eta gero futbolera pasa nintzen. Hori, 17 urterekin izan zen; hortaz, badira 12 urte futbolean jokatzen dudala.

**Ordutik, beti jokatu izan duzu atezain postuan?**

Bai, beti jokatu izan dut atezain postuan. Txikitan, eskolako jolas-orduan, inork ez zuen gura izaten atezaina izatea, eta niri berdin zitzaidanez ni jartzen nintzen. Hala, gustua hartu diot.

Hainbat txapelketa jokatu izan dugu; gogoratzen dut AEDk antolatutako txapelketa jokatzen genuela. Hala, Mondrakoek jokatzen ikusi eta deitu egin zidaten futbolean hasteko.

**Izan duzu erreferenterik?**

Ez, egia esan ez dut atezain jakin bat jarraitu. Ez dut horretan arreta jarri. Hala ere, beti daude erreferente diren atezainak; besteak beste, Arconada eta Zubizarreta. Eta, orain, Casillas dago.

**Zein esango zenuke dela zure dohain onena?**

Momentu hauetan, beteranotasuna da, duda barik. Horrenbeste urtetan futbolean ibilita, trukuak ikasten dira eta orain hori da dudan onena.

Talde barruan igarri egiten da; hasiera batean guztiz beldurtuta egoten zara, eta atezain posturako garrantzitsua da segurtasuna izatea.

**Eta hobetu beharrekoa?**

Asko, beti dago zer hobetua. Hankekin jokatzea, sakea… hobetu beharrekoak ditut. Denetik apur bat.

**Nola heldu zaizu Realean jokatzeko aukera?**

Realeko entrenatzaileak deitu zidan, Garbiñe Etxeberriak. Proba antzeko batzuk egitera joateko esan zidan; Donostiara joan nintzen Realarekin entrenatzera. Gero, berriro deitu zidan ea taldera elkartuko nintzen galdetuz.

Entrenamenduak maiatza hasieran egin nituen. Ekainean egon nintzen eurekin berba egiten eta adostasunera heldu gara, baina oraindik ez dut ezer sinatu.

**Nolakoa izango da Superligarako jauzia?**

Izugarrizko jauzia izango da. Erregionala beheko liga da eta Superliga, berriz, gorenena.

**Samurra izan da Realera joatea erabakitzea?**

Kontuan hartu behar izan ditut hainbat gauza, izan ere Superligan jokatzeak dedikazio asko eskatzen du. Batez ere, lan orduekin arazorik ez izatea zen nire ardura. Gainontzean, Superligan jokatze hutsak nahiko ilusio egiten du behar besteko esfortzua egiteko.

**Entrenatzeko modua asko aldatuko da?**

Bai, hiru egunetan entrenatzetik lau egunetan entrenatzera pasako naiz, egun bat gehiago. Eta, ordu eta erdi entrenatzetik bi ordu entrenatzera pasako naiz. Intentsitate aldetik, uste dut gogorragoak izango direla entrenamenduak. Ordutegi aldetik, errepidean eman beharko ditut ordu asko. Donostiara joan etorria egiten pasako dut denbora asko.

**Zein izango da zure lana talde barruan?**

Borroka egin beharko dut postua lortzeko… egia esan, ez dut horri buruz berba egin. Baina, bi atezain gaude, eta horrelako lekuetan borrokatu beharra dago. Inork ez dauka garbi jokatuko duen edo ez.

**Zela ikusten duzu Realaren egoera?**

Nik ez dut larregi berba egin gai horretaz. Behin egin nuen berba nesken taldeko batekin eta Reala bigarren mailan egotea igartzen zela esan zidan. Hortaz, suposatzen dut azkenaldian Realak duen egoera nahasia ere nabarituko dugula, baina ez dakit ze puntutaraino.

**Realzalea zara.**

Bai, betidanik. Horregatik pena ematen dit Reala bigarren mailan ikusteak. Bestalde, egia da ez dudala larregi jarraitu lehenengo mailako futbola. Nesketan jokatzen dut eta mutiko txikiak entrenatzen ditut; ondorioz, ez dut denbora larregirik. Nahikoa futbol izaten dut astean zehar, gero nagusien taldeak ere jarraitzeko! Baina, beti izan naiz Realzalea.

**Nola ikusten duzu emakumeen futbolaren egoera?**

Gizonekin ezin da alderatu, beste kontu bat delako. Ni hamar urte nabil futbolean, eta urte guzti hauetan ikusi dut hobera egin duela. Lehen senior maila bakarrik zegoen; eta, orain kadete eta infantilak ere badaude. Baina, hobe mutilekin ez alderatzea.

**Datorren urteari begira, non ikusiko dugu nesken taldea?**

Aurten jaitsiera postuetatik ihes egiten ibili dira; datorren urterako, berriz, jende berri asko etorriko dela esan didate. Hortaz, maila mantentzea izango da helburua. Lehenengo zortzien artean sailkatuz gero, kopa jokatzeko aukera egoten da; baina, hori ametsa izango litzateke.

Mutilak, ostera, ea Lehenengo mailan ikusten ditugun datorren urtean!



Sokoa Azkarate Mojategin, egubakoitzean ateratako argazkian. JOSETXO ARANTZABAL

**"Betidanik jokatu izan du atezain bezala eta dagoeneko gustua hartu diot"**

**"Ez dut atezain jakin bat jarraitu baina Arconada eta Zubizarreta erreferente izan dira"**

**"Superligan jokatze hutsak nahiko ilusio egiten du behar besteko esfortzua egiteko"**

**"Oraindik ez dut horri buruz berba egin baina borroka egin beharko dut postua lortzeko"**

UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA **IV. LEHIAKETA**

# Bidali zure udako argazkiak

**...eta hiru sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!**

**Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak**

**Har ezazu parte!**







## Baldintzak

- Udako argazkiak izango dira: berdin izango da aurtengo udan ateratakoak izan edo beste uda batekoak.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Argazkiak jasotzeko epea hasiko da ekainaren 23an eta amaituko da irailaren 17an.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko erresoluzio eta kalitatearekin).
- Bidali ahal izango dira e-postaz argazkiak@goiena.com helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri: Arrasate: Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500 Arrasate, edo Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate. Bergara: Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara. Aretxabaleta: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan kartazal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD batean, edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri beltzean.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen eta abizenak, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, edo beste komentario laburren bat).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren 14tik aurrera ASTELEHENEKO GOIENKARIAn.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 6an jakingo dugu ASTELEHENEKO GOIENKARIAn.
- Parte-hartzaileek gehienez 5 argazki bidali ahal izango dituzte.
- Lehiaketaren epai-mahaia osatuko dute Goienako kideek eta argazkigintzan adituak diren debagoiendarrek.
- Epai-mahaiak baloratuko ditu: argazkiaren kalitatea, originaltasuna, balio historikoa, bizitasuna..., besteak beste.
- Honez gain, GOIENAko beste hedabideek ere egingo dute lehiaketaren jarraipena.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Aukeraketa egingo dugu argitaratzeko.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENEKO GOIENKARIAko artxiboan geratuko dira, etorkizunean beste erabilpen bat eman nahi bada, beti ere egilea aipatuz.

## Sariak



**1. saria**

**Olympus E-510 reflex** argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
- 10 milioi pixel.
- Bi objektibo aldagarri: Zuiko digital 14-42 mm eta 40-150 mm.
- Flash eta guzti.
- 2,5 hazbeteko LCD pantaila.




- **2. saria:** Astebukaera bateko egonaldia bi pertsonarendako Arrasate Bidaiak-en eskutik.




- **3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Babeslea: kutxa

Laguntzaileak: kiñu argazkilariak, OLYMPUS Your Vision, Our Future, GURE AMETSA JATETXEA, Arrasate Bidaiak BIDAIA-AGENTZIA ELKARTUA marsans viajes

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

**Harpidedun egiteko:**
943 08 10 50
Astelehenetik egubakoitzera
09:00etatik 18:00etara



**> SAN PEDRO JAIAK**
Eskoriatzan nagusien danborrada inoiz baino jendetsuagoa izan zen **> 24**



**> ASTE BUKAERA**
Josu Zabala Mondragon Unibertsitateko erretorea **> 27**



**> ELKARRIZKETA**
Arrasateko Jon Berezibar kazetari multimediari elkarrizketa **> 29**



**ERREKAN GORA JAIALDIA** Portugaleko Fado Em Si Bemol taldea Santa Marina plazan izango da hilaren 26an. GOIENKARIA



**ESPOLOIKO KONTZERTUAK** Barikutan izango dira emanaldiak. GOIENKARIA

# Udan ere musika, festa giroa eta zinema

Udarako egitarau bereziak prestatu dituzte Debagoieneko herri guztiek

Elgetak, Aramaiok eta Antzuolak herriko jai nagusiak ospatuko dituzte uztailean

**MAIDER ARREGI** > BERGARA

Udan ere aukera mordoa dago non nahi gozatzeko. Gure ibarrean uztaila gainezka dator ospakizunekin, zine emanaldiekin, musikarekin, antzerki eta ikuskizunekin; gozatzeko aukera paregabea zalantza gabe. Hainbat herritan jai nagusiak ospatuko dituzte eta badira nobedadeak ere egitarauetan. Antzuolan, esaterako, *Guateke solidarioa* egingo dute uztailaren 12an. Tradizioa, ordea, urteroko Mairuaren Alardearen eskutik etorriko da. Elgetan, berriz, Ferixa Nagusia egingo da uztailaren 6an. Eta Aramaiok ere San Martin jaiak ospatuko ditu. Aurten, gainera, badaude nobedadeak egitarauan: tortilla lehiaketa lehen aldiz egingo da eta herri kirolak berreskuratuko dituzte. Aipatu baita ere, Eskoriatzan lehen aldiz egingo dela Errekan Gora jaialdia.

## Udako gauak herriz herri

### Bergara

**Espoloian kontzertuak, 22:30ean**

| | |
|---|---|
| Uztailak 11. | JJ Band taldearen jazz flamenko doinuak |
| Uztailak 18. | Jose Luis Pardo & The Mojo Workers |
| Uztailak 25. | Terela Gradin eta G.E.M Trio galiziarrak |

**Zine kluba gaztetxean, 21:30ean**

| | |
|---|---|
| Uztailak 3. | Lucía y el sexo |
| Uztailak 10. | Deseando amar |
| Uztailak 17. | Historia de O |

### Arrasate

***Udan be bai!* Gazte Bulegoa eta Sexologia Zerbitzua**

| | |
|---|---|
| Uztailaren 7, 8, 9. | Herritarrendako arreta zerbitzua |
| Uztailak 3. | Grafitiak, Esan eta DJ Kirrinek lagunduta |
| Uztailak 8. | Ain 1 taldearen emanaldia |
| Uztailak 10. | Bidaiatzeko aholkuak Mertxe Bilbaorekin |
| Uztailak 24. | Dantza erakustaldia Maite Albesekin |
| Uztailak 24. | Ipuin kontaketa saioa |

**Jaiak**

| | |
|---|---|
| Uztaila erdian. | Santa Marinako jaiak |
| Uztaila bukaeran. | Maala Errebaleko jaiak |

### Aretxabaleta

**Diaporama emanaldiak Arkupen, 19:30ean**

| | |
|---|---|
| Uztailak 3. | 7 pareta eta 7 kontinente |
| Uztailak 10. | Vietnamen zehar |
| Uztailak 17. | Budang la montaña mágica |

**Umeendako ikuskizunak Arkupen, 17:00etan**

| | |
|---|---|
| Uztailak 5. | Behin bazen zirkoa |
| Uztailak 12. | Magia eta umorea |
| Uztailak 19. | Hipo eta Tomax |

**Zine emanaldiak Iturrigorrin, 21:30ean**

| | |
|---|---|
| Uztailak 6. | Indiana Jones (reino de la calavera de cristal) |
| Uztailak 13. | La boda de mi novia |

**Antzerkia eta literatura**

| | |
|---|---|
| Uztailak 11. | *Ezker-Eskuma* ikuskizuna Arkupen |
| Uztailak 15. | *Hitzak orbainetan*, literatura Arkupen |

### Eskoriatza

**Errekan Gora jaialdia, 23.00etan**

| | |
|---|---|
| Uztailak 5. | Txatarreria Keaton, herriko plazan |
| Uztailak 12. | Teatrino dei Piedi, Gernika plazan |
| Uztailak 19. | Logela Multimedia, Unibertsitatean |
| Uztailak 26. | Fado Em Si Bemol, Santa Marina plazan |

### Oñati

**Musika eta festa**

| | |
|---|---|
| Uztailak 5. | Rock kontzertuak eliza aurrean, 20:00etan |
| Uztailak 4-6. | Garagardo festa |
| Irailak 16. | Bertso saiheski festa |
| Irailak 18. | Oskorri eta Musika Bandaren kontzertua, 22:30ean |

**JAIAK** > ESKORIATZAKO SAN PEDRO JAIAK

# Zapatu gauean egin zen danborradan 180 lagun inguruk parte hartu zuten

San Pedro jaiei hasiera paregabea eman diete eskoriatzarrek

Jaiei agur esan aurretik herritarrek umeen egunaz eta Euskal Jaiaz gozatzeko aukera izango dute

**MAIDER ARREGI** > ESKORIATZA

Zapatu gauean nagusien danborrak Eskoriatzako kaleak kolorez, sorginkeriaz, magiaz eta jendez bete zituen. Urtero emakumearekin lotutako antzinako gai bat izaten du ardatz danborradak. Aurten, Amuska emakume taldeak, sorginkeria, petrikiloak eta emaginak protagonista izatea aukeratu du. Herri guztia zeharkatu zuten danbor doinuek eta karrozek: pilotalekutik irten eta San Pedrotik Intxaurtxuetara. Ondoren, Olazar kaletik Dorleta auzora eta geltokira abiatu ziren. Azkenik, danborrada Aranburuzabala kaletik jendearen oihu eta txalo zaparrada artean herriko plazara joan zen amaiera emateko.



Jendez, kolorez eta sorginkeriaz bete zituen nagusien danborradak Eskoriatzako kaleak. JOSETXO ARANTZABAL

**PARTE HARTZE HANDIA**

Cirilo Perea danborradako zuzendari nagusia pozik azaldu da urtetik urtera parte hartzea handiagoa delako. "Herritarren parte hartzea geroz eta handiagoa da. Aurten inoiz baino jende gehiagok esku hartu du; 180 lagun inguruk". Pereak gaineratu du gazte jendearen kolaborazioa urtetik urtera handiago dela.

**BI JAI EGUN AURRETIK**

Gaur, umeen danborrada izango da protagonista. Golden Apple Quartet taldearen musikarekin gozatzeko aukera ere izango da. Eskoriatzako taldeek, ordea, rock abesti ezagunen bertsioak egingo dituzte. Bihar, berriz, Euskal Jaia ospatuko dute. Eguerdian, taloa eta sagardoa dastatzeko aukera izango da. Ondoren, herri bazkaria egingo dute Gorosarri plazan. Eta arratsaldean II. Kantu Txapelketa.

## San Pedro jaiak, egitaraua

**Ekainak 30, astelehena**

- 09:00 Txistulariekin kalejira
- 12:00 Txan Magoa, Gorosarrin
- 12:00 Hildakoen aldeko meza
- 13:00 *Voces Navarras* taldea
- 16:30 XVII. Mus txapelketa
- 18:30 Haurren danborrada
- 20:00 Samu Crew break dance eta Aritz Sound System dj-a
- 23:00 Golden Apple Quartet
- 24:00 Herriko taldeen rock abesti ezagunen bertsioak

**Uztailak 1, martitzena**

- 10:30 Txistularien kalejira
- 12:30 Talogileak eta sagardo kupelak herriko plazan
- 13:00 Plazan, Musika Eskolako dantzari taldeen ikuskizuna
- 13:30 Trikitilari Eskolako ikasleekin kalejira
- 14:30 Herri bazkaria Gorosarrin
- 18:00 Herriko plazan, II. San Pedroetako Kantu Txapelketa
- 19:30 Euskal preso eta errefuxiatuen aldeko kalejira.
- 20:00 Dantzaldia plazan Imuntzo eta Belokirekin
- 24:00 Jaiei bukaera emateko bandera jaitsiera

**GAZTEBURUA** > OÑATIKO IV. GAZTETXE EGUNA

# Gaztetxearen aldeko aldarrikapenak eta jai giroa nagusi Oñatiko IV. Gaztetxe Egunean

200 lagun inguruk hartu zuten parte Gaztetxe Eguneko bazkarian eta manifestazioan

**MAIDER ARREGI** > OÑATI

Oñatiko IV. Gaztetxe Eguna jendetsua izan zen. Gazte Asanbladako kide Tiago Gonsalvesek Gaztetxe Egunaren balorazio oso positiboa egin du: "Jende askok hartu du parte bai egitaraua egitean, baita guztia antolatzen ere. Egia esan, denon artean egindako lana da. Parte hartze handia ikusita, balorazioa oso positibo da". Jai giroan murgildu eta ondo pasatzeaz gain, helburu nagusia gaztetxe bat aldarrikatzea da. Gonsalvesen arabera, "jende asko irten da kalera gaztetxe bat aldarrikatzera: "gaztetxearen alde gaudenak asko gara. Ikusten da herrian gaztetxe baten beharra dagoela. Izan ere, gaztelekuak ez ditu guztion beharrak asetzen". Eguraldiak eta giro paregabeak lagunduta, kontzertuetara ere jende asko gerturatu zen zapatu gauean.




Gaztetxearen aldeko manifestazioa Gaztelekuaren aurrean. JOSETXO ARANTZABAL




Aurten 84 milioi euro inbertituko ditugu Gizarte Ekintzan. Adituek esaten digute publizitate-kanpaina zirraragarriren bat egin beharko genukeela. Baina ezagutzen gaituzu. Guk nahiago dugu zuri Institutu Onkologiko berriaren lanak nola doazen erakutsi.
125 urte gizartearen ongizatearen alde lanean
Gizarte Ekintza, kutxaren izateko arrazoia.
ONKOLOGIKOAREN ERAIKUNTZA
12:30 08/05/29
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa


Zure nahiak eta ahalmenak gertutik landu eta garatu nahi dituzu ?
Etorkizunerako prestakuntza eguneratua jaso nahi duzu ?
Bi urte barru zure inguruko enpresa batean lan egin nahi duzu ?
Bidal ezazu SMSa imaltuna hitzarekin 5533ra eta hori egia bihurtzeko informazio guztia zure mugikorrean izango duzu.
MATRIKULA DATA:
Ekainaren 30etik uztailaren 4ra.
GLHBI Miguel Altuna
Ibargarai, 1. 20570 Bergara
Tfnoa.: 943 76 38 40/943 76 24 91
www.imaltuna.com
e-mail: imaltuna@sarenet.es
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION
AENOR
INVESTOR IN PEOPLE


beherapenak
Dena, askoz merkeago
Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra
el Boulevard
de Vitoria-Gasteiz
www.el-boulevard.com
Argi eta garbi

ASTE BUKAERA...

## Josu Zabalarekin



Josu Zabala, Arrasateko Uribe auzoko plazan egubakoitzeko poteoa hasi aurretik. MIREIA BIKUÑA

# "Egubakoitzetan poteoa egiten dut lagunekin, Arrasateko Uribe auzoan"

Etxean dagoenean sukaldari lanak egiten ditu Mondragon Unibertsitateko erretoreak

Musika atsegin du, eta Bruce Springsteenek Donostian emango duen kontzertura joango da

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

Josu Zabala (Azkoitia, 1952) Mondragon Unibertsitateko erretorea da. Hain zuzen, 2006ko azaroan hartu zuen kargua. Arrasatera kasualitatez heldu zela dio: "1969. urtean Donostiara joan nintzen Ingeniaritza Tekniko Mekanikoa egitera, eta bukatzear nengoela Tolosara (Frantzia) joateko aukera izan nuen Arrasateko beste ikasle batzuekin. Bost urte egin nituen Frantzian, eta pisukideekin, Arrasate sakon ezagutzeko aukera izan nuen. 1978. urtean Ikerlanen hasi nintzen lanean, eta 21 urte egon nintzen han. Ondoren, lantegiak barrutik ezagutzeko asmoz Fagorren egin nuen lan, eta orduan sortu zitzaidan erretore izateko aukera". Azaroan bi urte beteko ditu erretore lanak egiten. Hain zuzen, bulegoan ematen ditu ordua asko, baina bulegotik kanpo askoz gehiago. "Denbora gehiena bulegotik kanpo ematen dut, besteak beste, fakultate ezberdinetako zuzendaritza batzordeekin eta Kontseilu Erretorearekin biltzen naiz. Gainera, Eusko Jaurlaritzan ere ordu asko egiten ditut. Beste erakunde batzuek gonbidatzen nauten ekitaldietara ere joaten naiz, dena den guztietara ezin naiz iritsi. Kontutan hartu behar dugu Unibertsitatea oso garrantzitsua dela gizartearendako", dio Josu Zabalak.

### POTEOA LAGUNEKIN

Egubakoitzean bulegoko atea ixten duenean hasten da aste bukaera Josu Zabalarendako. Hain zuzen, txikiteoa egiten du lagunekin. "Egubakoitzetan Arrasateko lagunekin ibiltzen naiz Uribe auzoan. Jeneralean bost bikote elkartzen gara, eta txikiteoa egiten dugu. Bukatzeko, afari- merienda egiten dugu egubakoitz gehienetan".

Lagunekin egoteaz gain, Donostiara joaten da zapatuetan eta domeketan. "Alde zaharrean dugu etxea, eta aste bukaeratan egundoko giroa egoten da han. Gainera, Donostiara joanda, hiriburu batek dituen abantailak aprobetxatzen ditugu emazteak eta biok: adibidez, zinemara joaten gara oso gustura".

### SUKALDARI ONA

Hiru alaba ditu MUko erretoreak, hain justu ere, 28, 27 eta 22 urtekoak. Bi zaharrenak Donostian bizi dira, eta gazteena Arrasaten. Hala aste bukaeratan haiek bisitatzera joaten da. "Bakoitzak bere bizitza dauka, baina askotan elkartzen gara bostok, eta hainbat gauzei buruz egiten dugu berba".

Arrasateko eta Donostiako etxeetan egin beharreko koponketak ere aste bukaeratan egiten ditu. "Asko erlaxatzen nau, eta gustura egiten ditut", dio. Sukaldari oso trebea ez den arren, amantala oso gustura janzten du. "Asko gustatzen zait sukaldari lanak egitea, eta jaki batzuk oso goxoak egiten ditut. Dena den, lagunekin elkartean afaltzen dudanean, beste batzuek egiten dute afaria. Koadrilan sukaldari oso onak ditugu, eta halakoetan, mahaia jarri eta haiek egindakoa jatea izaten da onena".

### "Rolling Stones taldea atsegin dut; Bilboko eta Donostiako kontzertuetan egon nintzen"

Autoa hartzen duen bakoitzean gustuko duen musika jartzen du. "Batez ere, rock sinfonikoa entzuten dut. Asko gustatzen zait Rolling Stones taldea; eta 2003. eta 2007. urteetan, Bilbon eta Donostian egindako emanaldietan egon nintzen". Mike Oldfield, Mark Knopfler eta Bryan Adamsen musika ere entzuten du.

Pink Floyd taldearen zuzeneko kontzertuan egon zen, lan kontuengatik Berlinera egindako bidaia batean. "Brandenburgoko atetik paseatzen geundela, musika doinu ikaragarria entzun genuen, eta ezer jakin gabe, han aurkitu genuen Pink Floyd taldea entseatzen. Ez genuen bitan pentsatu, eta kontzertuan geratu ginen. Emanaldia doanekoa zen eta 30.000 lagun egon ginen kontzertuan", esan digu. Uztailean, musikarekin zerikusia duen beste hitzordu garrantzitsu bat du Josu Zabalak: "Uztailaren 15ean, Bruce Springstseen kontzertura joango naiz".

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 05** sailkatuak@goiena.com

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU. GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 17 € (BEZ BARNE).**

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Etxebizitza berria salgai garaje itxiarekin. Herri erdi-erdian. Oso eguzkitsua. 12 metro koadroko terrazarekin. Erdi jantzia eta prezio onean. 671 66 01 69.

**Aramaio.** Etxebizitza salgai Nardeaga kalean. Telefonoa: 945 44 51 01

**Bergara.** 70 metro koadroko etxebizitza salgai San Lorentzon. Berriztatua eta guztiz jantzia. Bizitzera sartzeko moduan. 943 53 22 19

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza erdialdean. Prezio negoziagarria. Saltzeko presarekin. 659 64 67 38.

**Gasteiz.** 80 metro koadroko etxebizitza Mendizorrozan. Hiru logela eta bi komun. Gas berokuntza indibiduala. Hego-mendebaldera eta dena kanpoaldera begira. Igogailuarekin eta garaje plazarekin. 615 70 99 86 edo 605 72 14 38.

**Oñati.** 90 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. Garaje itxia eta ganbara. Guztiz jantzia. Oso eguzkitsua. 680 44 95 55.

**Oñati.** Apartamentu berria salgai herri erdi-erdian. Garaje eta guzti. Ordainketarako erraztasunak. 665 71 42 69.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan Uribarri kalean. Telefonoa: 635 72 27 81.

**Oñati.** 90 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan. Garajea izateko aukerarekin. Estreinatzear. Telefonoa: 651 70 92 57.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Iñaki. Telefonoa: 608 49 89 93.

**Baserria** hartuko nuke errentan, berdin da egoera. 669 17 09 51.

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan herri erdialdean. Igogailuarekin eta altzaririk gabe. 679 31 62 68.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Mutila etxea osatu edo logela alokatzeko gertu. 662 08 22 03.

**Arrasate.** Bi pertsona behar dira Eguzki dorrean etxebizitza osatzeko. 620 52 94 98.

**Arrasate.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Deitu 21:00etatik aurrera. 680 17 38 37.

**Arrasate.** Logela bat hartuko nuke errentan. Iñaki. 608 49 89 93.

**Bergara.** Bolun logela ematen da errentan, sukalderako aukerarekin. Natalia. 670 85 86 68.

**Debagoiena.** Etxebizitza partekatuko nuke Bergaran edo Arrasaten. 662 08 22 03.

**Donostia.** Bi neska behar dira etxebizitza osatzeko, unibertsitatetik oso gertu. 651 70 85 13 edo 665 70 00 27.

## 2/ GARAJEAK

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje irekia ematen da errentan Uribarri auzoan. 635 72 27 81.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Garajea hartuko nuke errentan Masterreka edo Santa Marina inguruan. Telefonoa: 669 63 93 29.

## 3/ LOKALAK

### 304. ERRENTAN HARTU

**Lokala** hartuko nuke errentan. Gehienez ere 350-400 euro. 669 17 09 51.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**ARRASATE**

**Sukaldari laguntzailea behar da. Autoa beharrezkoa 665 71 65 57**

**Aramaio.** Emakume euskalduna behar da ordu batzuetan umeak zaintzeko. 685 73 58 55.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu edozein lanetarako. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakumea gertu arratsaldez etxeko garbiketa lanak egin edo haurrak zaintzeko. 675 71 37 72.

**Arrasate.** Emakumea gertu garbitasun lanak egin edo tabernetan orduka lan egiteko. 659 34 68 05.

**Bergara.** Emakumea prest pertsona nagusiak edo umeak orduka zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. 664 74 82 07.

**Bergara.** Esperientziadun neska umeak zaintzeko gertu. 680 17 33 61 edo 943 76 08 76.

**Bergara** Neska arduratsua umeak zaintzeko gertu arratsaldez. 680 17 33 61 edo 943 76 08 76.

**Debagoiena eta Donostialdea.** Eskarmentu handiko neska nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo orduka egingo nuke lan. Debagoienean eta baita Donostia inguruan ere: 606 64 16 09.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua etxe edo tabernako garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko gertu. Orduka edo gauez. 678 80 96 01.

**Debagoiena.** Emakume gaztea garbitasun lanak egin eta umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Etxean bertan bizi izanda edo orduka. 664 74 82 07.

**Debagoiena.** Emakumea garbitasun lanak egiteko prest, baita pertsona nagusiak zein haurrak zaintzeko ere. 650 70 98 76.

**Debagoiena.** Emakumea gertu goizez eta arratsaldez umeak zaintzeko. 696 84 19 51.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. 676 87 64 08.

**Debagoiena.** Emakumea okindegi batean lan egiteko prest, baita garbiketa lanak egin edo pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko ere. Udan bakarrik. 688 66 08 85.

**Debagoiena.** Gizonezkoa gertu garbiketa lanak egin edota nagusiak zaintzeko. Etxean bertan lo egiteko prest. Jose. 680 75 14 88.

**Debagoiena.** Ikasketak dituen emakume esperientziaduna pertsona nagusi edo gaixoak zaintzeko edo etxeko garbiketak egiteko gertu. 943 76 53 43 edo 629 75 00 30.

**Emakume** euskalduna astean hiru egunez lan egiteko gertu (bi edo hiru orduz). Abuztua barne. Rosi. 943 77 16 01.

**Oñati.** Irakasle eta lehen mailako Psikologia ikasketak dituen neska uztailean lanerako prest. 651 70 85 13.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Arkitekturako** lehenengo ikasturteko ikasle batek eskola partikularrak emango lituzke udan. 676 61 15 47.

**Ingeles** komunikatiboko eskolak ematen ditut. Maila guztiak. Laguntza eskola edo azterketak prestatzeko. 15:00etatik aurrera deitu. 610 97 49 68.

**Oñati.** Esperientzia handiko irakasleak eskola partikularrak ematen ditu, udan eta kurtso osoan. 943 78 28 43.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Ehiza txakurrak** salgai. Pointer arrazako lau txakurkume. Arrak. 5 hilabetekoak. Ehizarako aproposak. 125 euro. 615 73 58 38.

**Setter ingeles** arrazako txakurkumeak salgai. 605 73 75 30.

### 703. EMAN

**Katakumeak** oparitzen ditut. Gris naparrak (marratuak). Amaia. 943 76 21 71.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Apple** teklatua eta sagua. Beste ekipo bat erosi dudalako Apple Keyboard eta haririk gabeko Mighty Mouse arratoia saltzen ditut. Egoera onean daude, ia erabili gabeak eta jatorrizko enbalatzeekin. 100 euro. 667 95 73 16.

**Autorako bozgorailuak** salgai. 50 euro. 617 13 17 51.

**Baxu anplifikadorea** salgai. HH burua 100 watt, Bassamp VS modeloa. Egoera onean. 180 euro. 607 21 19 69.

**Brain trainning** berria salgai. Erabili barik dago. 617 13 17 51.

**Habia-ohea,** zur-latazko somierra eta bi koltxoi salgai. 150 euro. 656 41 00 08.

**Izozkailua** salgai. Bosch markakoa. 60 euro. 639 02 02 75 edo 943 76 55 88.

**Kanpinerako karro-denda** salgai. Alpen Kreuzer. Inertziadun balaztak, autoen gurpilak. Bi logela bikoitz, jantokia 4-6 pertsonarentzako, sukaldea, hozkailua... Egoera onean, beti garajean gordeta. 1.000 euro. 615 72 47 43.

**Kutxa gotorra** salgai. 0,70X0,70X1,15 neurrikoa. Egoera onean. 750 euro. 656 73 44 72.

**Ordenagailua** salgai. Hiru urte ditu. 943 08 18 13.

**Ordenagailua.** Bigarren eskuko ordenagailua daukat salgai. Hiru urte ditu. Telefonoa: 943 08 18 13.

**Ordenagailua.** Mahai gaineko ordenagailua salgai: Intel Pentium 4, 3 Ghz prozesagailua, 120 Gb-ko disko gogorra, 512 Mb RAM, TFT 17"-ko monitorea, Windows XP. Ia berria. Prezioa: 600 euro, negoziagarria. 617 78 71 65.

**Sarrerak.** The Police Bilbao BBK Live kontzertuan (uztailaren 4an) ikusteko 6 sarrera salgai. Telefonoa: 943 78 28 43 edo 653 71 80 30.

**Sarrerak.** The Police taldeak uztailaren 4an Bilbon emango duen kontzerturako bi sarrera ditut salgai. 660 04 77 70.

**Snowboard** botak (Burton Hail, 10 zenbakia, egoera onean) eta fijazioak (Technine, gama altua, erabili barik) salgai. Dena batera 150 euro eta banatuta, 80 euro bakoitzak. 680 44 91 51.

**Taladroa** salgai, mahaikoa. Egoera onean dago. 400 euro, negoziagarri. 679 10 95 23.

**Telebista.** Phillips HD Ready 37"-ko telebista salgai. LTDrekin (TDT). 1.300 euro. 650 80 80 39.

**Terrazarako** zortzi mahai, 42 aulki eta bi eguzkitako handi salgai. Prezioa, adosteko. 650 80 80 39.

**The Police** taldeak Bilbon uztailaren 4an emango duen kontzerturako sarrera bat daukat salgai, erositako prezio berean: 72 euro. 943 76 59 53 edo 943 76 30 97.

**The Police.** Bi sarrera Bilbao BBK Live jaialdiko uztailaren 4ko ekitaldirako: The Police, The Charlatans, Morcheeba, The Wombats, Fancy eta The Gift. Sarrera bakoitza 72 euro. 652 70 77 86.

**Trikitia** salgai. Zero Sette Antico modeloa. Sol-do tonua. Prezio interesgarria. 608 12 38 15.

**Umearentzako karroa** salgai, Trio Chicco markakoa. Kotxe kapota, aulkitxoa eta kotxearendako aulkia, 40 eurogatik hirurak. 639 02 02 75 edo 943 76 55 88.

### 804. HARTU

**Lursailen** bat hartuko nuke doan edo errentan. 669 17 09 51.

### 806. GALDU

**Argazki kamera** desagertu zen ekainaren 20an (ostiral eguerdian) Eskoriatzako Fagor Automotion ondoko jesarlekuan, balio sentimental handiko argazkiak barne. Memoria-txartela eskuratu nahiko nuke. Mesedez, eraman edo bidali Aretxabaleta edo Eskoriatzako postontziren batera edo honako helbidera: Olazar 7, 4. eskuma. 699 86 17 79.

**Bergara.** Umearen jaka bakeroa galdu dut Poligonoan. 669 63 93 29.

**Patinetea** galdu nuen Aretxabaletako Arlutz osteko kantxan, ekainaren 7an. Beltza da. 'Unai F.' izena dauka jarrita. 666 13 30 57.

**Poltsikoko telefonoa** galdu dut. Aurkitzen duenak saria jasoko du. 667 33 68 38.

**Umearen motorra** utzi nuen, ahaztuta, Aretxabaletako Gernika plazan. 'Naroa' izena dauka atzean jarrita. 943 53 30 39.

### 807. AURKITU

**Betaurrekoak** aurkitu nituen Aiba mendi martxan, Zabalaundi inguruan. Tolestu egiten dira. Arrasateko BAZ bulegoan daude. 943 25 20 00.

## 9/ HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Autoa konpartitu** nahi dutenentzat: *www.compartir.org*. 635 20 33 14.

**Gasteizera** egunero joaten den norbaiten bila nabil autoa konpartitzeko. 637 91 33 81.

# LAN ESKAINTZA

**Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatiba Elkarteak**

**KOMERTZIALA behar du Debagoienerako:**

Eskaintzen da:
- Egun osoko lan jarduna.
- Aldi baterako kontratua, Gizarte Segurantzarekin.
- Lantaldean lan egitea.
- Soldata interesgarria.

Eskatzen da:
- Euskaraz jakitea (ezinbestekoa da).
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Gidatzeko baimena edukitzea.

Kontuan hartuko da:
- Publizitate eta komertzial ezagutzak izatea.
- Debagoienean edo inguruan bizitzea eta ondo ezagutzea.

Curriculumak bidali uztailak 10a baino lehen ondorengo helbidera:
*idazkaritza@goiena.com*

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

**LAN ESKAINTZA**

TXANTXIKU IKASTOLA

TXANTXIKU IKASTOLAk
**EUSKAL FILOLOGIAn LIZENTZIATUA** behar du.

**Curriculumak jasotzeko epea: uztailaren 7a.**
**Helbidea: San Juan, 1 20560 - OÑATI**
**Posta-e: txantxiku@ikastola.net**

# ETXE AGENTZIAK

**Jar ezazu hemen zure publizitatea**
**943 25 05 05 publi@goiena.com**

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Zabalotegi 80 m². Eguzkitsua. Bista onak.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 m². Berritua. Ganbararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua. Gazteentzat.
- Ibargarai 74 m². Ondo. Garajea aukeran.
- San Juan. Bifamiliarra. Prezio oso ona.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Matxiategi 61 m². Prezio ona. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- Zubieta 75 m². Txokoarekin. Oso ondo.
- Simon Arrieta 80m². Prezio ona.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Zubiaurre 52 m². Gazteentzat.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Artekale 62 m². Berritua.
- Fraiskozuri 102 m². Bi balkoi.
- Ibargarai 106 m². Duplexa.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 52 m². Prezio ona.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

**Arrasate:**
- Erdiko kalea 113 m². Balkoiarekin. Ondo.
- Zarugalde 90 m². Balkoiarekin. Eguzkitsua.

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Etxe berriak 178 m². Duplexak eta adosatuak.

**Oñati:**
- Kale Zaharra. 62 m². Terrazarekin. Ortua.
- Lezesarri. 75 m². Eguzkitsua. Erdi berritua.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Artekale, 89 m², ondo.
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Matxiategi, 65 m², berritua eta aukera ona.
- Ibargarai, 80 m², oso ondo.
- Artekale, 70 m², oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Matxiategi, 65 m², ondo.
- Aranerreka, 87 m², oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Sanantonabat, 70 m², oso ondo.
- San Lorentzo, 81 m², eraikuntza berria.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 m², berritzeko.
- Irizar Pasealekua 89 m², ia berria.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m², berritua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m², berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m², berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m², berria.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 m², oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m², erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.

ASESA
aretxabaletako sustapen elkartea s.a.
grupo amara

Iralabarri plaza 10, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 53 28 30
www.amaralekua.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**ARETXABALETA**
- Otalora. Duplexa 85 m². Oso egoera onean
- Loramendi. 62 m². Guztiz berritzeko.
- Iralabarri plaza. 105 m². Garajeko bi plaza. Jantzia. Oso ondo.
- Lausita. 80 m². Jantzia. Oso eguzkitsua. Bista oso onak.
- Araba Ibilbidea. 92 m². Ganbararekin. Taberna hartzeko aukerarekin. Berritzeko.
- Bi plazako garajea. Lausittan.

**ESKORIATZA**
- Txalet unifamiliar eta adosatuak. Zonalde lasaia (Kuatruena).
- Zure neurriko txaleta eraikitzeko lursailak. (Kuatruena)
- Sustapen berria: gela bakarreko, biko eta hiruko etxebizitzak. 100.000 €-tatik 200.000 €-raino. Apuntatu.
- Duplexa aukeratzeko. Kiroldegiko zonaldea. Oso eguzkitsuak eta bista oso onak.
- Garaje plazak eta ganbarak. (Gastainadui)
- Gastainadui 73 m². 48 m²-ko terrazarekin. Oso bista onak. Estreinatzeko.
- San Pedro 80 m². Garajearekin. Jantzia. Oso egoera onean.
- San Pedro. 74 m². Berritua. Sukalde hornitua. Estreinatzeko.
- Aranburuzabala. Duplexa 104 m². Oso eguzkitsua. Estreinatzeko.

**ARRASATE**
- Erdiko kale. Estreinatzeko etxebizitzak. Apunta zaitez.

**LEINTZ GATZAGA**
- 172 m²-ko etxebizitza eta 219 m²-ko orubea.

**ERRIOXA-CIRUEÑA**
- Golf egoitzaldea. 82 m². Garajearekin. Estreinatzeko

**ZURE ETXEBIZITZAREN SALMENTA KUDEATZEN DUGU.**

## astea GOITBn

### Astelehena, 30



**> Gurutze Gorriaren gaineko erreportajea**
**21:47**

Gurutze Gorriak 25 urte bete dituelako, Julen Iriondok erreportajea egiteko aprobetxatu du. Gaur izango da 21:47an Goiena Telebistan.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Munduko futbol txapelketa.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Erreportajea-Ttipi TTapa.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ilunpean.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Wazemak.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazkiak.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Hitz bitan.
**18:15** Teknopolis.
**18:45** Berriak.
**19:15** Animalia.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunako.
**20:45** Berriak.
**21:15** Harmaillatik.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Erreportajea.
**22:15** Kirolari.
**22:45** Berriak.
**23:15** Harmaillatik.
**22:45** Gaurkoak.
**23:30** 28 Klipa.
**00:15** Emisio amaiera.

### Martitzena, 1



**> 'Berbaire' gaurkotasuneko gaiekin dator**
**21:47**

Martitzenero bezala, gaurkotasuneko gaiekin datorkigu asteotan ere *Berbaire* saioa, Julen Iriondoren eta kolaboratzaileen eskutik.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Muka muka.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Erreportajea.
**14:15** Harmaillatik.
**14:45** Berriak.
**15:15** Animalia.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Kirolari.
**16:15** Eltze beroa.
**16:45** Berriak.
**17:15** Horry.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** 28 Klipa.
**18:15** Musikantoi.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak: Horry.
**19:45** Berriak.
**20:15** Kantari.
**20:45** Berriak.
**21:15** Wazemak.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Berbaire.
**22:15** Euskaldunok hizketan.
**22:45** Berriak.
**23:15** Ikusmira.
**22:45** Gaurkoak.
**23:30** Erreportajea.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 2



**> Eskoriatzako San Pedro jaiak eguaztenean**
**21:47**

Eguaztenean eskainiko du Goiena Telebistak San Pedro jaien gaineko saio berezia. Jaietako une onenak eta politenak ikusteko aukera, 21:47an.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Munduko futbol txapelketa.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Kantari.
**14:15** Eltze berioa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Berbaire.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Euskaldunok hizketan.
**16:15** Wazemak.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazkiak.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Animalia.
**18:15** Harmailatik.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Berriak.
**20:15** Euskal artzainak.
**20:45** Berriak.
**21:15** HItz bitan.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Jaiak: Eskoriatzako jaiak.
**22:15** Ur eta lur.
**22:45** Berriak.
**23:15** Ikusten.
**23:45** Gaurkoak.
**23.47** Jazzmina.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguena, 3



**> Musikaren gaineko kontuak 'Musikantoi' saioan**
**22:15**

Musika zaleok, eguenero duzue hitzordua Goiena Telebistan *Musikantoi* saioarekin. Asteotan ere musika eskaintza zabala izango duzue.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Euskal artzainak.
**14:15** Jaiak:Eskoriatzako Jaiak.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ikusten.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Ur eta lur.
**16:17** Eltze beroa.
**16:45** Berriak.
**17:15** Muka muka.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Ilunpean.
**18:15** Kirolari.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazkiak.
**19:45** Berriak.
**20:15** Kantari.
**20:45** Berriak.
**21:15** Erreportajea.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Berbaire.
**22:15** Musikantoi.
**22:45** Berriak.
**23:15** Hitz bitan.
**22:45** Gaurkoak.
**23:30** Teknopolis.
**00:15** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 4



**> Jose Antonio Bastegieta 'Ilunpean' saioan**
**22:15**

Jose Antonio Bastegieta *Marko*, Kortezubiko alkate ohia, oso ezaguna bilakatu da saltsero hutsa delako eta lehiaketa xelebreak antolatzeagatik.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Ur eta lur.
**14:15** Euskaldunak hizketan.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:15** Berbaire.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Musikantoi.
**16:15** Ur eta lur.
**16:45** Albisteak.
**17:15** Marrazkiak.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Ilunpean.
**18:15** Jaiak: Eskoriatzako jaiak.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Ikusmira.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak.
**20:45** Berriak.
**21:15** Erreportajea.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Animaliak.
**22:15** Ilunpean.
**22:45** Berriak.
**23:15** Musikantoi.
**23:45** Gaurkoak.
**23:30** 28 Klip.
**00:15** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**> San Juanak, Arrasate Irratian protagonista**
**10:30**

Arrasate Irratian, herriko jaiak izango dira datorren asteko protagonistetako bat. Hain zuzen ere, irratsaio berezia prestatzen dabiltza irratiko langileak, etxean edo lanean daudenei jaiak helarazteko helburuaz.

### Zapatua

**10:00** Asteko gainbegiratua.
Eguraldi kontuak Bixente Pagoagaren eskutik; hirugarren adinekoen gainekoak (dieta, tertulia...) *Zaharrak berri* saioan, eta sexologia kontuak, besteak beste.

### Domeka

**10:00** Asteko gainbegiratua.

### Astelehenetik egubakoitzera

**10:00-12:00** Igo Autobusera
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Teknoberriak
Igo Euriborrera!
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearen errepasoa
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com*)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## gertutik



Jon Berezibar
Kazetaria

# "Albistegiak aurkeztea eta eguraldia ematea gustatuko litzaidake"

**MIREN ARREGI** > BERGARA

**Arrasateko Jon Berezibar kazetariak hainbat urte daramatza Goienan lanean. Besteak beste, ASTELEHENEKO GOIENKARIA-n, Arrasate Irratian eta Telematika sailean ibilia da lanean; aspaldian azken bi horietan. Horren aurretik, baina, Durangaldeko *Anboto*-n eta ETBn ere lan egin zuen. Hala ere, ikus-entzunezkoetan espezializatuta dago eta alor hori oso gustuko du.**

**Telematikaria eta irrati esataria zara. Lan desberdinak dira ezta?**

Bai, oso. Irratia lan ezaguna da eta telematikan egunero duzu zeozer berria. Telematikari lana oso lan teknikoa da, baina agian kazetari izateko ere baliagarria da, teknologia berriak kontrolatzeak balio erantsia ematen duelako.

**Irratia entzutea gustuko duzu? Egun ba al dago irrati zaborrik?**

Irratia oso dut gustuko. Goizeko lehen orduetan, jaikitzen naizenean, irratia pizten dut. Eztabaida politikoak eta elkarrizketak ditut gustuko. Gustatuko litzaidake politikaren gaineko saio bat egitea. Irrati zaborrik ba ote dagoen? Zaborra alde guztietan dago!

**Irratiko programazio zure eskutan balego, zer formatu lantzea gustatuko litzaizuke?**

Saio politikoak, bereziki. Musika ere oso gustuko dut, baina gaur egun zaila da irratian musika saioak egitea, musika guztia Interneten dagoelako.

**Telebista gustuko duzula badakigu. Kamera aurrean lan egitea gustatuko litzaizuke?**

Bai, asko. Beti gura izan dut albistegiak aurkeztea edota eguraldi gizona izatea. Gainera, ikus-entzunezkoetan espezializatuta nago eta paradoxikoki profesionalki landu ez dudan alor bakarra da, nahiz eta proiektu pertsonalak egin ditudan: hala nola, filmak, dokumentalak, muntaiak...

**Zer da telebistan ikusten duzuna?**

Telesailak ditut gustuko. Asko gustatzen zaizkit telesail onak eta berehala *harrapatzen* naute. Hala ere, gaur egun ez da telebista onik egiten, nahiz eta noizean behin gauza onak aurki daitezkeen.

## asteko hitzorduak

### Jardunaldiak



OÑATI

**> Ekitaldi irekiak egongo dira LSNEren udako ikastaroen barruan**

Bihar, martitzena, Munduko Emakumeak delako jardunaldia dago kultura etxean, 17:00etan; eta etzi, SOS Arrazakeriak berriketaldia bideratuko du, eta *El lobo de los cuentos* filma emango dute, leku eta ordu berean.

### Erakusketa



ESKORIATZA

**> Jose Arana filantropoaren gaineko erakusketa bisitatzeko aukera dago**

Eskoriatzan jaio eta hantxe ehortzita dagoen Jose Arana filantropoaren gaineko erakusketa zabaldu dute Ibarraundi museoan. Urriaren 19a arte egongo da zabalik, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

### Zinema



BERGARA

**> Julio Medem donostiarraren 'Lucía y el sexo' filma emango dute**

Gaztetxearen film erotiko zikloaren barruan, hilaren 3an, eguena, Julio Medemen *Lucía y el sexo* filma emango dute, 21:30ean. Lucía gaztea Mediterraneoko uharte batera doa, bukatu berri den harreman bat atzean utzi nahian.

**kuxkuxeroa**



Maider Arregi

# Hego haizia, jaixak, musika, kale-girua...

Egualdi onakin batea hasi dia jaixak Debagoienian. Oñatin Gaztetxe Eguna ospatu zan eta aspaldiko partez jendia eta *anbientia* zebilen. Badakitzue, egualdi onakin danak kanpora urteten daue ta! Bai bazkaixak ta baitta manifak be arrakasta euki eben. Han zebilen **Koldo** dana organizaitten!

Ta Gabeko kontzertuan sorpresia hartu neben. Izan be, hilabetetan nere garajian atzera ta aurrea dabiltzenak ze itten daueiñ jakin dot: musika ona. Zorionak **SanLo Garage Brothers**. Jarraittu lanian ta animaitten bazai urrian **Danbaka** Lehiaketara!

***Manolo el del bombo* Oñatiko Herriko Tabernan izan zan *España* animatzen eta bonbua jotzen**

Kalian giro politta. Hor zebillen **Xabi Axpe** *manolo el del bombo* jantzitta *España, España* animaitten. Kontuz Xabi ze *youtuben* agertu zeinke, grabauta dau ta! ja, ja!!

Ta Oñatitik kanpora be badau nora fan: Eskoriatzan, Aramaixon, Elgetan eta Antzuolan jaixak. Iruñan ta Lesakan San Ferminak, Azpeittin S*an Inaziyuak*...ta geo oñatiarrak ez garela herrittik sekula urteten entzun bihar. Txanpiñoian moura leku danetan gauz baña!!!

Eta tartetxo hau aprobetxau gura dot esateko aurreko asteko sustuan ostian **Moli** ondo dauela eta rekuperaziño ona eukiko dauela. Animo Moli! Quebranta datorren urtian hor eongo da ta!

**asteburuko albuma**



**Katamalo, Bihotz Bakartien Klubaren eskutik.** Jende multzoa elkartu zen Espoloian (Bergara) *Katamalo* ikusteko, eta benetan gustura jarraitu zuten Bihotz Bakartien Klubak gertatutako ikuskizuna. Ohi duen moduan, poesia eta musika bateratu ditu azken ikuskizunean, eta Gotzon Barandiaranen berbei musika dotorea jarri diete luxuzko musikariek: Gorka Urbizu (Berri Txarrak), Nerea Urbizu (Itzalak),eta Jon Piris (Ruper Ordorika).



**Puente Viesgora.** Oñatiko Aloña Mendi eskubaloi taldeko II. Korpus txapelketako sari banaketa egin dute egunotan, eta Eugenio Astigarragak jaso du saria: Puente Viesgon (Kantabria) aste bukaera eta 500 euro.



**Big Band, Monterronen.** Arrasate Musikal musika eskolako ikasleek osatutako Big Band-ek kontzertua eskaini zien herritarrei egubakoitzean. Zigor Martinez bergararrak zuzendutako taldeak ohiko doinuak jo zituen Monterronen: swinga, latinbossa, funka, rocka eta beste batzuk.



**Beatlesak, Eskoriatzan.** Liverpool hiriko musikari famatuenak imitatzen dituzten talderik onenen artean dago Abbey Road (Katalunia), eta Eskoriatzan izan zen egubakoitzean. John Lenon, Paul McCartney eta Ringo Star berberak agertu zirela herriko plazan iruditu zitzaien eskoriatzarrei.


## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:
**Arrasate** Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05 / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05. **Bergara** Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.
**Oñati** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65 **Aretxabaleta:** Goiena: Durana 11. 943 79 86 21. **Aramaio:** Kintelena janari denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.
**Elgeta:** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98. **Antzuola:** Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 100 euro.** Asteleheneko Goienkariako harpidedunak: 90 euro.
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn,
bietan, argitaratuz gero, **120 euro**. Asteleheneko Goienkariako harpidedunak: 110 euro.

**Goienkaria: astero, 50.000 irakurle Gipuzkoan (CIES).**




OROIGARRIA

## Jose Ramon Landa Bidaburu

Arrasaten hil zen 2008ko ekainaren 26an, 53 urte zituela.



GOIENAk bat egiten du senideen saminarekin.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

Arrasaten, 2008ko ekainaren 30ean.

## Zorion Agurrak


OÑATI
**Juli Arabaolaza Arregi**
Ekainaren 20an, urtebetetzea. Zorionak guapa! Patxo ugari etxekuen partetik; gozuenak Ainize, Zuraide, Aimar eta Jurgi bilobenak.


ARRASATE
**Julene eta Irati Unamuno**
Ekainaren 26an 2 urtetxo. Zorionak eta mila patxo etxeko guztien partetik, bereziki Unax eta Allison.


ARRASATE
**Asier Kortabarria**
Ekainaren 26an, urtebetetzea Zorionak, Aitatxo! Patxo handi bat eta ondo pasa eguna. Naroa.


ARETXABALETA
**Julen Azkarate Quintana**
Ekainaren 26an, urtebetetzea. Zorionak! Oso ondo pasau zure eguna. Ane, aitatxo eta amatxon partez, patxo haundi bat.


ARRASATE
**Paulo eta Jon Abasolo**
Ekainaren 28an eta 30ean betetzen dituzte urteak. Zorionak! Alaitz eta amatxon partetik.


BERGARA
**Mikel Unamuno Andueza**
Ekainaren 4an, urtebete. Zorionak! Patxo handi bat etxekoen partetik!


ARETXABALETA
**Unai Kerejeta Lanzos**
Ekainaren 29an, 4 urte. Zorionak eta patxo haundi bat Igor, amatxo eta aitatxon partez.


BERGARA
**Maddi Mateos Areitio**
Ekainaren 29an, bi urte. Zorionak!


ARRASATE
**Aritz Zubia Altuna**
Ekainaren 30ean, 6 Urte.Etxekoen partez, ondo pasau zure urtebetetze eguna. Patxo haundi bat eta ondo pasatu oporrak!! Aritz txapelduna zara.


OÑATI
**Jurgi Etxebeste Bolinaga**
Ekainaren 30ean, 3 urte. Etxekuen partetik zorionak eta ondo-ondo pasa! Eta Ainizek, Oierrek, Ibaik, Aimarrek eta Zuraidek txokolatezko patxo pilia...


ARETXABALETA
**Itsasne Barandiaran**
Ekainaren 30ean, urtebetetzea. Zorionak bitxito zure lehengo urtebetetzean! Zure aitona Fidel, amama Paki eta Jessica eta Jon izeba osaben partetik. Patxo handi bat!


BERGARA
**Jose Mateos Areitio**
Ekainaren 30ean urtebetetzea. Zorionak etxekoen partetik.


ARETXABALETA
**Maren Garai Santamaria**
Uztailaren 1ean, 2 urte. Zorionak, printzesa! Patxo handi bat familiaren partetik, eta bereziki, zuk asko maite dituzun Ainara eta Uxuen partetik.


ARRASATE
**Eider Agiriano Roteta**
Uztailaren 1ean, 8 urte! Zorionak etxekoen partetik!


OÑATI
**Xanti Egaña**
Uztailaren 1ean, 6 urte. Zorionak Xanti! Patxo erraldoiak etxekoen partetik!


BERGARA
**Iraia Igarza Gimber**
Uztailaren 1ean, urtebete. Zorionak ahizpa June eta etxekoen partetik.


ARETXABALETA
**Amaiur Bergaretxe Larrinaga**
Uztailaren 1ean, urtebetetzea. Patxo eta besarkada haundi bana etxeko guztien partez, zure egunean. Ondo pasau!


OÑATI
**Mireia Bikuña**
Uztailaren 5ean, urtebetetzea. Zorionak lankideen partetik.


ARRASATE
**Oihane Agirre**
Uztailaren 6an, urtebetetzea. Zorionak lankideen partetik.


OÑATI
**Irati Abarrategi Kortabarria**
Uztailaren 1ean, 6 urte. Zorionak eta patxo bat potxola, familiaren partez. Ondo pasa!


OÑATI
**Laida Vazquez**
Uztailaren 2an, urtebetetzea. Zorionak printzesa! Alaitz, Julen, tia eta tion partetik oso ondo pasau zure eguna eta patxo haundi bat.


ARETXABALETA
**Zorione Santamaria**
Uztailaren 3an, urtebetetzea. Zorionak, amatxo! Maren eta Uxueren partetik patxo handi bat, eta familia guztiaren partetik ondo-ondo pasatu eguna.

## Jaiotakoak


**Malen Murillo Estevez**
Arrasate > 3,000 kilo. Ekainaren 23an. Gurasoak: Marga (Arrasate) eta Carlos (Arrasate). Argazkian: Malen, aitarekin.


**Naroa Sanchez Berrio**
Arrasate > 3,260 kilo. Ekainaren 22an. Gurasoak: Sonia (Arrasate) eta Tana (Arrasate). Argazkian: Naroa, lehengusu Miguelekin.


**Jon Lonbide Aranburu**
Bergara > 3,880 kilo. Ekainaren 23an. Gurasoak: Naiara (Bergara) eta Luis (Bergara). Argazkian: Jon, sehaskan lo.


**Nora Roldan Girao**
Aretxabaleta > 2,900 kilo. Ekainaren 22an. Gurasoak: Marta (Eskoriatza) eta Alberto (Aretxabaleta). Argazkian: Nora, aitarekin.


**Markel Lopez de Munain Elkorobarrutia**
Bergara > 3,570 kilo. Gurasoak: Itsaso (Eskoriatza) eta Jose Ignacio (Araia). Argazkian: Markel, izeba Evaren besoetan.


**Aratz Etxebarriarteun Lazkano**
Arrasate > 3,676 kilo. Ekainaren 25an. Gurasoak: Olatz (Arrasate) eta Igor (Arrasate). Argazkian: Aratz, amaren besoetan.




ASTELEHENEKO **Goienkaria**
**EGOITZA NAGUSIA**
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Harpidetza:** 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2008-06-30

**Miren Urkiola** > Harrijasotzailea

# "Prototipoak apurtu egin behar ditugu"

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

**Miren Urkiola gaztea Bolibarko baserri baten bizi da. Harriak jasotzeagatik ezaguna izan arren, aerobika egiteko, panderoa jotzeko eta parranda egiteko denbora ere ateratzen badaki. Oso gustura dabil plazatan.**

**Zein izan zen aukeratu zenuen lehenengo kirola?**
Txikitan eskolan futbolean ibili nintzen, mutilekin-eta. Baina, gerora pilota nahiko serio hartu nuen. Horren ostean futbola, eta orain dela urte gutxi arte mahai-futbola. Pilota utzi nuen aukerarik eman ez zidatelako.

**Zeu eta beste batzuk bazabiltzate emakumeen kirolaren alde lan egiten...**
Bai. Pilotan nenbilenean mutilek askotan ez zuten nirekin jokatu gura izaten. Guk badakigu mutilen beste ezin dugula egin, baina gure tamainan aurrera egin dezakegu. Hori niretzat oso garrantzitsua da.

**13 urterekin hasi zinen harriak jasotzeko entrenatzen...**
Bai. Familiarekin Urkiolara joan nintzen egunpasa eta erakustaldian, txingak altxatzeko tentazioa izan nuen. 100 kilo jaso nituela esan zidaten, eta Zelai-k entrenatzeko aukera eman zidan. Hasieran ez nuen etxean esan eta bizikletan 8 kilometro egiten nituen entrenatzeko.

**Jendea harritzen da zu ikustean?**
Batzutan bai. Harrijasotzaileen prototipo bat dago: handia, zabala eta potoloa. Ni ez naiz argala eta txiki samarra naiz. Askori eskemak apurtzen dizkiet, baina prototipoak apurtu egin behar dira.

**Non eta noiz ikasi zenuen panderoa jotzen?**
Mallabian ikasi nuen orain dela 6-7 urte, hiru hilabetetan. Gero neure kabuz ibili nintzen ikasten. Eta aspaldian berriro ekin diot, lagun batek txapelketetarako bikotea behar zuelako. Galizian, Polonian... ibili gara.

**Aerobik eskolak ematen jarraitzen duzu?**
Denboraldi hau bukatu da, baina oso gustura ibili naiz irakasle Markinan eta Mallabian.

**Zelakoa izan zen telebistako *Identity* programan esku hartzea?**
Oso ondo pasa nuen, nahiz eta ez nagoen ohituta serio egoten.

**Eta etorkizunean zer lanbide izan gurako zenuke?**
Kirol alorrean lan egin gurako nuke. Datorren urtean kiromasajea ikasteko asmoa daukat, eta hortik tiratu.

TEST-A

**Herria:** Bolibar. **Adina:** 20 urte. **Ikasketak:** Batxiler Teknologikoa eta Tafid. **Zaletasunak:** Kirola, lagunekin egon eta parranda. **Zer amets bete duzu?** Beste neska bat harria jasotzen animatzea: Mari Jose Sardon. **Eta zer amets daukazu betetzeko?** AEBetako Boise herrira harria jasotzera joatea. Bi urte barru izango da, eta deseatzen nago. **Zenbat ume izango zenituzke?** Bi-edo. **Disko bat?** Ken 7 taldearen azkena.



**HARRIA** Neguan 125 kilo jaso gura ditu Miren Urkiolak. IKER BARANDIARAN

## ai, ene!



### Zaleendako komuna

Eurokopan golen bat sartzeko gogoz gelditu denarendako aproposa da komun hau. Punteria praktikatzeko aukera emateaz gain, futbol zaleendako diseinu aproposa dauka; atea eta zelai berdea ere ez zaizkio falta komun honi.

http://www.sarda.es

## biharamuna

Marijo Deogracias

### Gora España!

Lendakaris Muertos talde nafarraren abestia gogoan, *Zapatones* Aragonesen gorrien azkeneko partiduaren bezperan. Irabazi ala galdu gu, betiko, gorriaren alde. Aitortu behar dut, hasiera-hasieran, Wyomingek animatuta Portugaleko gorriaren alde aritu nintzela. Gero gorri errusiarraren alde egin genuen, baina hark ere kale –gora entsaladilla errusiarra!–. Baina jakin badakit, penintsulako espainiarrez gain, gurean ere milaka izan direla gorriari begira ibili direnak. Akaso horregatik izan du kalean hain arrakasta gutxi, mediotan ez bezala, Ibarretxeren galdeketaren Lege Proiektuak. Ze, azken batean, kantak berak dioen bezala "Gernikako arbola baino euskaldunagoa izanda, selekzioak jokatzen duenean ez dakit zer gertatzen zaidan".

Ia Zapatitosek ere galdeketa debekatzeko tarte bat hartzerik duen Casillas ta konpainiarengatik "GoraEspañaka" jarduteko. Ze, uda iritsi da! Abestu dezagun udako kanta: "Gora España". Eta, Alemaniak irabazi badu, euskaldunok behintzat badugu, udako kantaren alternatiba: jada Legebiltzarrean den "Galdeketa"; gaurtik aurrera, egunkari-irratitelebista espainiar, eta euskaldun, guztietan!



## eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +24 | +16 |

Giro ezengokorrarekin emango diogu hasiera asteari. Hodeiak eta ostarteak tartekatuko dira zeruan. Ekaitz arriskua.

www.euskalmet.net




WEBGUNEAN ➡ www.smsoinu.com

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea **KODEA**
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea **KODEA**
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea **KODEA**
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea **KODEA**

**5767** zenbakira

SMS bakoitzeko : **1,2 € + BEZa**

**smsoinu**
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

**ABESTIAK** POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) I **KODEA**

Himnoak
Eibar I **EIBAR**
Athletic Club I **BILBAO**
Osasuna I **OSASUNA**
Reala I **REAL**
Real Union I **UNION**

Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) I **SOROTAN**
Bai euskarari (Pantxoa) I **BAI1**
Bakezaleak (Anje Duhalde) I **BAKE**
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) I **BIZKAIA**
Eperrak (Anje Duhalde) I **EPERRAK**
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorri) I **EUSKAL**
Euskaldun berriaren balada (Oskorri) I **EUSKALDUN**
Ez da posible (Ruper Ordorika) I **POSIBLE**
Furra Furra (Oskorri) I **FURRA**
Galiziara noa (Oskorri) I **GALIZIARA**
Gernikako Arbola (Gontzal Mendibil) I **GERNIKA1**
Haika Mutil (Mikel Laboa) I **HAIKA**
Izarren hautsa (Xabier Lete) I **IZARREN**
Lepoan hartu ta (Pantxoa/Peio) I **LEPOAN**
Marinelaren zai (Sorotan Bele) I **MARINE**
Nere herriko neskatxa maite (B.Lertxundi) I **NERE**
Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarin) I **NON**
Oi! Ama Euskal Herria (B.Lertxundi) I **OIAMA**
Tirauki (Oskorri) I **TIRA**
Txatxamatxalinatxu (Mikel Urdangarin) I **TXATXA**
Txoria txori (Mikel Laboa) I **TXORIA**
Zaindu maite duzun hori (Ruper Ordorika) I **ZAINDU**

Herrikoia
Bagare I **BAGARE**
Desde Santurce a Bilbao I **DESDE**
Ikusi Mendizaleak I **MENDI**
Pintxo-pintxo I **PINTXO**
San Simon eta San Judas I **SAN**

**SOINUAK** ERREALAK (2 SMS)
Abestiaren izena I **KODEA**

1,2,3,4…Real!! I **REAL**
Alboka I **ALBOKA**
Athletic Iuep!! I **IEUP**
Buztan bertsoa I **BERTSO**
Hartu…Aitaren ta semea.. I **AITAREN**
Hartu…Ansar I **ANSAR**
Hartu…Argentinarra I **ARGEN**
Hartu…Mexikarra I **MEXIKO**
Hartu…Miamol! I **MIAMOL**
Independentzia! I **INDEPEN**
Irrintzia I **IRRINTZI**
Jotake irabazi arte! I **JOTAKE**
Milazu! (pilota) I **MILAZU**
Suprinua I **SUPRINU**
Tobera I **TOBERA**
Txalaparta I **TXALA**
Txanbela I **TXANBERA**
Txoootx I **TXOTX**

**LOGOAK** (SMS 1)
**KODEA**

LAU1 · MUSKARIA · AIZKORAK
NUKLEAR · KALABERA1 · EGUZKILORE3
SORGIN · POPATIK · KAPUTX

**OHARRAK**
**1.BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: **www.smsoinu.com/bateragarri**
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
**2. BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.
**3. ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: **smsoinu@smsoinu.com** / edo deitu **902 01 21 48** telefonora.
**4. PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.